

ARRATE MARDARAS

**PENDRIVE**



**ARRATE MARDARAS**

# **Pendrive**



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2013 Arrate Mardaras

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2013ko azaroa

Edizio hau: 2013ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Pott bandari.

Guraso, izeko-osaba eta arbasoei.

Irakurri eta iritziak eman dizkidaten adiskideei.

Iritziak ematera baino gehiagora ausartu diren

Karmeleri, Miren Agurri eta Martini.

## EDIZIOA FIKZIO

**Pendrivea** bulegoko mahai gainean aurkitu nuen goizero bezala kafea hartzetik bueltan mahaira eseri nintzenean. Nor egon zen hantxe bertan, aurrean, eserita bezperan?

Hark ahaztuko zuela pentsatuta dei egin nion, eta ezezkoak leiho bat zabaldu zidan beste inorena izan zitekeen probabilitatea ixten zuen bitartean.

Hurrengo egun guztia itxaron nuen, badaezpada, usebea ireki eta gordetzen zuena ikuskatzeko.

Sorpresa handia hartu nuen, anabasa hartan osotasuna aurkitu nuelako, puzzle bat zen, aukera bat edo beste ematen zituena.

Pendrive galdu baten inguruko hipotesiak jorratuz egindako testuak zeuden, hauei lotuta agertzen ziren beste testu solte batzuekin zetozenak. Eta baita ere ipuinak. Beraz, idazlea proiektu desberdinekin ari zela pentsatu nuen.

Editore batek inoiz egin behar ez zuena egitera ausartu naiz egile jakinik gabeko lana argitaratzean. Behin langa urratuta, ustezko proiektuak nahasi egin ditut.

Ipuinak kronologikoki ordenatuta zeuden, zenbaki erromatarrak erabiliz, Ginebrarena azkena zettorren, eta hala utzi dut. Bazeukan izenburua, beste ipuinek ez. Neuk jartzeko tentazioa izan nuen, eta, bidezkoa ez dela uste dudan arren, hala egin dut. Aparteko narrazioei ere izena jarri diet.

Lehen bi ipuinei buruz idazleak argitze aldera idatzitako oharra ere mantendu egin ditut.

Beste orrialde batzuk zeuden baztertu egin ditudanak, autofikzio itxura zutelako. Ez nuke arazorik nahi egiazko idazlea barik beste norbait balitz haren baimenik gabe mahai gainean utzi zuena pendrivea. Izenburua neuk asmatu diot.

Nire izenean erregistratu dut sei hilabete luzez itxaron ondoren jabeak bere burua ager zezan; inongo arrakastarik gabe, usu denari kontra eginez, hone-lakoetan haiek, idazleak, egoten baitira aiduru editorearen erabakiaren zain.

Idazle moduan funtzionatuko ez duen beldur, editore koldarrak sortutako lana datekeela pentsatuko duenik ere egongo da. Pentsatzea dohainik da.

## DEMAGUN

**Idazle** baten pendrivea aurkitzea lurrean. Putada galanta berarentzat, kopiarik ez badu egin. Ez gaitezzen zinikoak izan, putada galanta nahiz eta kopia izan, beti dago bizkorren bat igarriko duena norena den, erran nahi baita agerian ez badago nor den probabilitateak aztertzen hasiko litzatekeela.

Demagun jakintsu bati eman diola, kazetari edo filologo bati, eta estiloa aztertu duela: zurruna, erraza, eruditoa, hizkuntza ondo menperatzen duena, hizkuntza ondo menperatzen ez duena, betikoa, topikoa, mi-soginoa, feminista, astoa, sugandila...

Demagun jakintsua beste idazle bat dela, eta berehala atzeman duela nor den egilea: ostu liezazkioke ideiak, eta pixka bat animatuz gero, berean utzi propio bezala, aurpegi gogorak edonon daude eta.

Zer egin lezake pendrivearen jabeak, etsi ezik, gogoratzen duenean sari desiratu eta madarikatu hartara aurkezteko izan zela agerian utziko zuten frogak bertan daudela, azken unean atzera egin bazuen ere?

Demagun... baina ez, ia ziur erdalduna izango da aurkitzailea, ez du tutik ulertuko, eta dena ezabatu

eta Donostiako maskorrari edo osaba Oskarri jaramon eginez, irudi mugikorrez beteko du. Ez dakizue a zer nolako suertea duzuen idazle euskaldunok horretan ere!



# Okelaerrea ilargi betean

Suak harrian islatzen dituen irudiei begiratzea maite dut. Iruditxoek jauzi egiten dute, batean untxiek, bestean otsoek, edo arranoek; ederrena zaldia da, burua goratzen duenean eta hankak astindu. Gura adina su egoten da hemen, Izturitzen, denok batzen garenean; hogeit hamar sendi etorri gara aurten ohiko bilkuretara. Guk ez dugu luzaroan oinez ibili behar, egun batean egiten dugu Saratik hona; baina Harkaitzek, adibidez, gure amaren lurraldetik etortzen zenean, eskuetako hatz guztiak beste bider ikusten zuen ilargia hona heldu baino lehen; hala esan zidan berak, eta baita ere, batzuetan arin ibili behar izaten zutela gauerako aterpera heltzeko. Gero han lo eginda, bertokoekin batera egiten zuten bidea hurrengo aterperaino, eta horrela hona iritsi arte.

Igaro dira hiru urte Harkaitzek hori esan zidanetik eta gurekin geratu zenetik. Nik oraino ez nuen hilekoa, orain badakit zer den. Ahizparekin bat egitera etorri zen Harkaitz, eta hamar ilargi beteren ostean Eguto jaio zen; Eguen Handian jaio zen, eta egun ho-

rretakoek soilik eraman dezakete izen hori, Eguk hala uzten dielako.

Haize handia omen zebilen ni jaio nintzen unean, eta horregatik Haize deitzen naute. Gure aztia den osabak haize haren indarra izango nuela iragarri zuen, amaren zorionerako; orain, beharbada, horrek betekoa du itxaropenez ama, ez ordea ni, nik ez baitut inoiz nabari izan indartsua naizenik, ahul samarra baizik.

Niri adore ematen didana Harkaitz kementsu aritzea da, eta ez etsitzea ni aurkitu arte. Baina hori ene amets ziztrina dateke, ahizpa da haren asmo eta irrika bakarra, ahizpa eta euren umea. Eta ehizan egitea.

**Azken** hartza hil zutenean, arratsalde amaiera izango zen itzuli zirenean. Eguzkia sartzen ari zen itsasoaren ezker aldean. Aita eta osabak ikusi nituen lehenik, azkonak eskuin eskuan, okela-zati handi bana sorbaldan; astiro zetozen, zamagatik, baina niri ez zitzaidan hori begitandu, goibel zetozela baizik. Harkaitz ez zen ageri. Neba ere ez, baina ez nintzen ohartu. Harkaitz ez zegoen, eta niri lurrak ikara egin zidan, bihotzak bularretik irten nahi izan zidan, arnasa arindu egin zi-

tzaidan, min zorrotza nabari izan nuen gerribarnean, eta zotinka hasi nintzen.

Agian oker nenbilela otu zitzaidan amak *zer gertatzen zain* galde egin zidanean, *okelaerrea izango dinagu* gehitu zuen, *goazeman zahatoen eta leren bila*, eta bultza egin zidan.

Ibilera bizian joan ginen hartz zatikatuaren ondora, bidean zaparrada itzela bota zuen Ortzik, eta nik gogoeta egin nuen Harkaitzek ez zuela igarriko negar egin nuela, eta usteko zuela euriagatik nentorrela horrela. Zeren nik, jasotako ezustekoagatik negar-anpuei eutsi ezinik egin nuen txangoa. Amak baina, agerian utzi ninduen; *a neska, gizonok ondo zauden, ez dun ikusten* bota zidan.

Aurpegia pozez beteta zekarren Harkaitzek, soina harro; hurrengo asteetan ere iraungo zion irribarrea zerion. Berak zulatu zion sama hartzari, ziplo erori omen zen hura, garrasi luzea egin ondoren.

Okelaerrea egin genuen bi egunetan zehar; gero, gibelesko hankak zehatu, eta elurtzara eraman genituen izotz zitezen. Ilgoran elurtea hasi zuen, eta okelak eta beste jakiak zeuden tokitik atera genituen, eta haitzuloko atetik gertu jarri genituen eskuragai eta piztien atzaparretatik babesturik. Orditik aurrera bar-

nean emango genituen gau eta egun gehienak hurrengo urtera arte, elurrak ortziko urari tokia egin arte.

Hori izan zen aurrerantzean niretzat sasoirik onena, elurtearena; Harkaitz ez zen ehizan ibiliko, ia egun osoan sutondoan gezi berriak egiten eta zaharrak zorrozten arituko zen. Nik harria egurrari lotzeko uhalak ebaki, eta leundu egingo nizkion, amak beti beste zereginen bat bilatzen zidan arren. Harkaitzek irribarre gozoaz eskertuko zidan, eta hartzaren hagi-nekin egindako lepokoa oparituko zidan...

Lepokoa burutik behera sartu zidan; gero adatsa esku biek jaso zidan leunki gainean gera zedin, eta atzamarrekin hartuz, nire kokotsari amiñi bat gorantz egin zion.

Gau horretan ez nuen lorik egin: bere irribarrea gogoratzean bihotzak hegan egiten zidan, bere soina enearen hain gertu oroitzean alua taupadaka hasten zitzaidan.

Harrezkero bere ondoan egon nahi nuen beti, baina lotsa nintzen hurbiltzen zitzaidan aldioro. Masailak berotu eta gorritu egiten zitzaizkidan. Gauetan euren zokorantz begiratzen nuen, ahizparekin eta ilo-

barekin zetzala. Besoa ahizparen gerri gainean izaten zuen gehienetan.

Handik gutxira, barrunbeetan ostendu eta negarez hasten nintzen noiznahi. Ez nintzen batere gose, eta amaren esanak ez nituen entzuten ardurenean. *A neska, iratzar hadi, andratu haizenetik lo hago eta esan zidan azkenean, hori gertatu beharrekoa zunan;* baina nik ez nion jaramon handirik egin itxuraz, zeren *osabak gogorra ala burugogorra iragarri al zinan* jaurti zuen handik astebetara, eta esaldi harekin batera orein larru bat ere jaurti zidan, lan egin nezan aginduz keinu batez.

**Eguna** apur bat epelagoa nabari zen. Eguzki izpiek ateko harria zulatzen zuten esnatu nintzenean. Har-kaitz ikusi nuen gure sarrera hartan urrunera begira nagiak ateratzen. Eguzkiaren argitan nekusala, Egu bera ere ezin zela hain ederra izan begitandu zitzaidan. Gizon hura gabe ezingo nintzela bizi barrundatu nuen, eta negargalea etorri zitzaidan. Era hartara bizitzea jasanezina egiten ari zitzaidan. Bihotza astinduta neukan. Etsita nenbilen, ezinak atea ixten zion nahia-

ri, ene ezina gure ate hartan jartzen zen nahiari ezetz, ez zela sartuko aginduz.

Ez nion inori ezer aipatu, nork ulertu eta onartuko zuen horren gaixo egoteak maitasuna zuela sorburu? Irrigarri geratuko nintzatekeen beste neskatxen artean.

Pitinka, ni ere jaiki nintzen, zutitu nintzenean Harkaitz ateko harri handian zegoen zutik niri so. Aztortu egin nintzen ez bainuen holakorik itxaro, eta sutondora bidean, iruditzen zait, irrist egin nuela; jakin ere ez nekien oinak non jartzen nituen eta, hain nindoan urduri.

Jaten egin genuen luzaroan ia denok -hogeita bost lagun gara orain-, Egutok ere tititik edan zuen, lehengusinen umeeek ere bai -sei haur ditugu guztira-. Amaitu genuenean Harkaitzek Urdazubikoei ikustaldia egitera joango zela esan zuen, eguzkia lagun genuela ustiatuko zuela. Ez dakit zer azkon-buru eta aizto ere aipatu zituen, hangoekin aztertu behar zituela. Eta bat-batean *Haizek lagunduko dit* jaulki zuen amari begiratzuz. Honek ez zuen ezer ihardetsi, ados zegoen zantzu. Ni harrituta nengoen, Harkaitzen keinuagatik, noski, baina baita ere amaren otzantasunagatik, hark beti baitzuen laguntasun beharra, larruekin batez ere,

haiek leuntzen edota josten, belar eta ale lehorrekin ere bai, edota okela-lanetan. Beste emakumeak zitu-  
tuen lagun, baina ni nahi ninduen ondoan, ederto ikas-  
nezan. Ordurako bazebilen ni norbaitekin lotzekotan,  
nik ez banekien ere oraindik nor zuen gogoan.

Joan ginen, beraz; elurraren agindupeko eremuan  
sartu ginen, bera aitzinean, ni bere lorratzei jarraiki,  
belaunetarainoko itsaso zurian zehar. Nik ez nuen  
tutik ere esaten, ez dakit lotsagatik ala zirrarakatik.  
Bestalde, ez nuen ulertzen zergatik ni eta ez lehengu-  
suren bat, haietariko edozeinek zekien nik baino  
gehiago gezi eta eztenez.

Gazi-gozo neraman bihotza hortaz: gazi, susmo  
txar batek hartuta, eta gozo, haren soina nigandik  
hain gertu eta nire babes nekusalako.

Azkon bana zeraman Harkaitzek esku banatan,  
eta arkua eta geziak bizkarreko ziskuan; nik makila  
bana esku banatan eta biderako janaria bizkarrean za-  
kuto batean. Azkar gindoazen piztien beldur. Bide  
erdia baino gehiago egina genuenean haizeak norabi-  
dea aldatu, eta iparretik jotzen hasi zen zakar, elurra  
ekarriz; mara-mara hasi zen, maluta oso lodiak jaurti-  
kitzen, eta handik gutxira ez zen ezer ikusten. Nekez  
gindoazen, eta Harkaitzek *han* esan eta gerritik heldu-

rik harantz joanarazi ninduen. Harpe txikia zen, baina haizearen babesean. Aspaldiko sute baten aztarnen ondoan eseri ginen, zoko batean. *Atertu arte itxaron egingo dinagu* entzun nion, baina ez zitzaidan ziurtasunez egindako esaldia iruditu. Nahiz eta eguraldiak hobera ez egin, jarraitu egin beharko genuela esan nahi ote zuen, edo han igaro beharko genuela gaua? Ez genuen sua egiteko tankerarik, nola ez zitzaidan gogora etorri su-egurak hartzea? Toki guztietara eramaten genituen, badaezpada. Txikitan sua pizten hain ondo ikasi nuen honek, urte eta elurte askotan suaren zaindari izan naizen honek, erabat ahantzi nuen beroa eta babesa ematen digun lagun ona. Zakutoan ez zeudela ondotxo nekien arren, bilatze itxurak egin nituen. Harkaitz *lasai, atertuko din* mintzatu zitzaidan, baina ateraino joan eta gorantz begiratu zuen, eta *agian* ez erantsi zuen. *Bila itzan* entzun nion gero. Ni zeharo larritu nintzen, huts egin niola neritzon; *nola maitatuko din horren ergela den neska*, zioetan nire buruak zakutoan barna esku bat eta gero bestea alferrik nerabiltzan artean. Azkenik, negar-anpuluak begietan so egin nion. Begirada hartan zigor nintzan eskatzen nion, horren inozoa zen emakumezkoari gogor eta zakar ekiteko eskubidea zuela nerakutsan, ahizpa ni



baino hamaika aldiz jatorragoa eta ganora handiagokoa zela onartzen nion, eta joan zedila ni han utzita galdegiten nion. Hark nire aurpegia ikusita, gerturatu eta negar-arpuluak hatz lodiaz igurtziz *egingo dinagu zelanbait, ilundu baino lehen ea hemen nonbait egurren batzuk aurkitzen ditugun* indarberritu nahi izan ninduen. Hori entzun nuenean berarekin hil nahi izan nuen hantxe bertan, betiko elkarri lotuta geratzeko; Egurenean elkarrekin egongo ginen, hark galarazten ez bazigun behinik behin. Gogo hark bultzatuta berrakatu egin nuen negar batean. Berak besoetan estutu eta *oso ondo egingo dinagu lo, etxean bezala* esan zuen. Etxean esan zuen eta ez leizean, etxeak urtean zehar erabiltzen genituenak ziren; bidean ikusi genituen edo erdi ikusi hobe esanda, elurrak ia estalita baitzeuden. Soilik enbor nagusiak geratzen ziren biribil bat egiten zutela; urtearen hasieran larruz eta egurrez beteko genituen tarteak, eta haien inguruetan ibiliko ginen elurtera arte. Etxean esan zuen, eta ez leizean, okerkuntza hura urduritasunari egotzi nion, eta lehentxeago izandako heriotza guraria –edo ausaz iragarpena– beteko ote zen susmoa izan nuen.

Ez zen horrela izan baina, Harkaitzek egur batzuk aurkitu zituen, eta nik sua egin nuen, nire galbiderako. Orain, gurari hura bete izana nahi nuke.

Gautu egin zuen, eta zerbait jan genuen. Harkaitzek hartz-larruzko beroki luzea erantzi, eta atean eskegi zuen azkonetan zintzilikaturik, ia sarrera osoa hartzen zuen, hau txikia baitzen. Epeletan geunden han, gure zoko hartan, edo nik hala nabari nuen. Poztasun berezi batek hartuta nengoen gizon harengandik hain gertu, biok bakarrik... Dagoeneko ez nintzen hotz, ezta lotsa ere, eta berarekin bat egiteko nahia nuen, bat egin hemengo bizi honetan.

Igarri izan balit bezala, jagi eta ondoan eseri zitzaidan, sutatik hurbil geunden. Besoaz beragana eramanez ninduen, eta *zein ondo gauden* esanez laztantzen hasitzen, lehenik besoak, gero sama, ondoren gerria; atzamarrak jostari zebiltzan, ezpainak lagun; holaxe egon nahi nuen betiko, gozotasun hartan murgildurik. Suaren txinpartak entzuten genituen, niri xirula baten hots xamurrak laguntzen ziela iruditzen zitzaidan, edo beharbada Harkaitz izango zen, ziozala: *laztana, maitea, nire txoritxo, nire tximilota, maite al naun?* Eta nik baietz erantzuten nion, baietz eta baietz. *Enea izan nahi dun?* galde egin zidan, eta nik beti izanen

nintzela berea ihardetsi nion, eta emeki-emeki bere egin ninduen. Berak gerritik heldurik lo egin genuen.

Hurrengo goizean eguzkia berriz azaldu zen eguzarogiroan guri bidea erakustera. Ohi baino gutxiago behar izan genuen heltzeko; Harkaitz azkar zihoan hara iristeko irrikan bezala, ez zidan jaramon askorik egin bidean, ni minduta nindoan; gero ohartu nintzen nigandik ihesi zebilela, han gure artean zerbait zegoela uste izango ote zuten beldur. Neba ere haien artean bizi zen asko ez zela. Zuhurtziari egotzi nion, eta jarrera hura onartu egin nuen. Gure artekoak ongi egin nahi zituen.

Atsegina ezagutu nuen gure gau hartan, handik aitzinera edozein unetan azaltzen zitzaidan zirrara bilakatu zen: elur malutak ikustean, txoriño baten txioa entzutean, haurretariko baten barrea aditzean eta eguzkiaren zirriek eraginda, batez ere. Harkaitzen soin irmoa oroitzen nuen nireari itsatsita, haren usaina zetorkidan, bere haragiak, keak eta larruek sortzen zutena, eta sabelpean haren zakila zebilkidan gozogo. Nola ahantzi?

Egunak aurrera zihoazen, eta amari, ni ere bere ondoan nahi ninduela ahizparekin batera, noiz erran-

go zion aiduru nengoen. Ahizparekin ere hitz egin beharko zuen.

**Harkaitzek** irribarre eztsua egiten izan dit ikusten izan nauen guztietan, eta ahal zuelarik gerritik edo lepotik oratzen izan nau maitekiro. Denok baturik aurkituko ginen aukera hau erabiliko zuela uste izan dut goizean. Baina amak Urdazubiko Ekaitzekin jarri nau bazkaritarako; hark ekarritako opariak erakutsi dizkigu gero, eta berarekin lotuko nintzela hurrengo bilkurretan esan du. *Mutil ederra, ezta? Horrek kenduko dizkin mamala-usainak.* Harkaitz han zegoen eta ez du tutik esan. Zertara eraman ninduen ba, Urdazubira? Ekaitzen sendiari opariak eramatera joan ginen, azkon-buru eta aiztoak...

Amaren gogokoa da Ekaitz eta ez nire gogokoa, hori ondotxo daki amak; baiezkoa emango niola uste zuen, hala ere? Ez diot ezetzik esan, ordea; ez dut mindu nahi, aspalditik ezagutzen dugu elkar. Horregatik ihesari eman diot: desagertu inguruetarik.

Bizitza elurtza amaigabea iruditu zait, zurtasun horretan betiko noraezean ikusi dut neure burua, etxe

eta haitzuloen babesik gabe, suaren epeltasunik gabe, izututa eta izoztuta.

Sastada hilgarria izan da eguerdikoa. Bazkalostean, etsipenak hartu nau, eta zauritu nauen aiztoari erailtzeko agindu dio. Zertarako bizi, maite duzunarengandik urrun bada? Joan egin naiz, hasieran ez nekien nora, gero zangoak lasterka hasi dira eurak euretara. Gehiago ezinik gelditu egin behar izan dut, eta Urdazubirako bidean nintzela ohartu naiz. Berehala ulertu dut: gogoak harantz ninderaman, gure zokorantz, orduan hil beharko nukeen berarekin, eta ez orain, bakarrik, bertan behera utzirik.

Hotz egiten du, baina ni oso bero naiz. Izerdiak eta odolak bat egiten dute izterrean, gerriko uhalarekin lotu dut, baina odolak erion dario.

Ilundu egin du, suaren argiaren mira naiz, Harkaitzek edirota egurtxoekin egin nuen suaren garrak ez daude, baina ikusi egiten ditut aldika; eta bera nire gainean eta ni bere gainean; alua ireki didaneko oina-zearen aienea dantzut, eta geroago nire auhen hasperendunak, eta bere marruak, eta nire barrea, eta bere irribarrea.

Lok hartu nau? Zerbaitek iratzarri egin nau, atean argia dakusat, bi argi txiki. Giza oin-hotsak, ala hartza

da? Hartzaren begiak? Aurkitu egin nau. Larri nago, ez daukat indarrik. Usaindu egin nau, usaindu egin du nire odola, eta hemen da burutzeko ehiza. Zurekin hil nahi dut Harkaitz, ez hartz honekin, zurekin bizi nahi nuke, ez hartz honekin hil. Entzun egin dit, nigana dator, Harkaitz da, ikusi egin nau; ez, hartza da. Besoetan hartu nau, banarama, hartz-kumeen okelaerrea ilargi betean. Zotinka hasi da, negarrez ari da. *Maite haut, ez hadi joan, maite haut, zer egin dun* diost. *Nik ere bai, nik ere maite zaitut* saiatu naiz, ezpainak mugitu ditudan arren, ahotsa ezin izan da irten. Hiltzen ari naiz, zurekin hiltzen, Harkaitz...

## Oharra

Ez dut inoiz irakurri kobazuloetan kokatutako maitasun ipuinik. «Zer dakizu zuk euren arteko harremanei buruz?» botako didate. Jakin, gutxi, eta maitasun kontuez are gutxiago. «Zer dakizu zuk zelan egiten zuten berba?». Logikak esaten dit, gaur egungo jarioaz egiten zutela berba, Raquel Welchen gorputz perfektuko ahotik *One million years B.C.* filmean horrelako sila-

ba traketsak entzutea, ganorazko esaldi bat egin ezinik dabilela, hori egiten zait sinesgaitza niri.

Gogoratzen badugu Barandiaranek aurkitutako burezurak eta gaur egungoak berdintsuak direla, euskaraz oso ondo egingo zutela ondo-rioztatzen dut. Euskaraz, bai, edo hizkuntza baskonikoren batean. Beraz, Izturitzen eta Durangaldean, orduan orain bezala, hizkuntza edo euskalki desberdinak izatea ez litzateke harri-garritzat hartu behar.

Beste gauzatxo bat: latinaren sasotik honakoak izan daitezkeen maileguak kentzen ahalegindu naiz; bestela nola isilarazi hainbeste denboran etxetik irten barik egon naizela esaten didaten horiek? Zertan aritu naizen? Ardura ez zaien beste gauza batzuen artean, honako hitz hauek aldatzen: *islatzen, gustatzen, politena, altxatzen, abiatzen, munduratu* (hau gainera anakronismoa litzateke), *sentitu, esperantza, desio, pisuagatik, pentsatu, falta, airerik* (anakronismoa?), *paparretik, erratuta, tiratu, abia-da, deliberatu, gorputza, salbu, pixka, gorde, hormako, kalera, kausa, espero, bisita, profita-*

*tuko, bota, seinale, gonbiteagatik, fruitu, pauso-  
ei, emozioagatik, akuilu, modurik, plantak, gaz-  
tiga, bortitz, tratatzeko, erregutzen, errakuntza,  
jaka, ferekatzen, presa, plazera, ferekak, amul-  
tsua, lelo-usainak, gustukoa, premia, korrika,  
abandonaturik.* Ordenan daude eta deklinatu-  
rik, tokatzen den moduan; errepikatuak ez ditut  
jarri (norbaitek ordezkatzeko-lana hartuko balu,  
errazteko asmoz). *Arkua*: ez dakit nondik dato-  
rren hitz hori. Inork azalduko ahal dit! Ez omen  
da bere etimologia ezagutzen. *Piztia*: latinean  
ere badagoen arren, mantendu egin dut. Zelan  
esan bestela? Basabereak? Ez. Basoan batez  
ere zuhaitzak daude; gaur egungo pentsamol-  
dea da, ordea, basatia ona ez dela, gure etxe  
eta eraikin ezagunetatik at dagoen oro mesfida-  
garriztat jotzea. Eta abere hitza? Abereak etxe  
eremuetan ibiltzen direnak dira. Latinezko *ha-  
bere* aditzarekin zerikusia omen. Aizue! *bestia*  
eta *basatia* ez dira oso antzekoak? *Zakutoa*: hiz-  
kuntza semitiko batetik ei datoz *zaku* eta *zaha-  
gi* hitzak.



Harkaitz, Haize eta Ekaitz egungo ikuspegi-  
tik izen modernoak dira, baina haitzuloetako  
garaietan ere egokiak, ene ustez.

Alokutiboa erabiltzea anakronia. Ados, bali-  
teke.

## DESPISTEA

**Sindaren** gizona marinela da eta Afrikan dabil. Gauero Sindak deitu egiten dio, eta telefonoan igarotzen du pare bat ordu. Horrek arazoa sortzen dio: txipiroiak plantxan jarri, eta tintan ateratzen zaizkio. Bere burua ere ez du ispiluan ikusten aspaldian, beltz-beltza dago ispilua, txipiroiak bezala. Sinda arduratuta dago, eta irratira deitu du goizeko programa batera, ez ote den hilda egongo, ea hilda gaudenean jan, edan eta kaka egiten dugun. Lasai egoteko diotso esatariak, ez dagoela hilda, banpiro ere ez dela bihurtu, hurrengoan kontu pixka bat jartzeko suari.

Sinda ipuin-kontalari antza zuen harekin liatu zen aspaldi. Gauzak ez zihoazkion ondo, eta burua beste norabait zeramakion hartaz maitemindu egin zen, agi denez plazer bila, baina haragizko irrati hura isildu zenean, benetako irratian ohiko bihurtu zen: Zer dakarkiguzu gaur, Sinda? Ui, oso goibel nago Manex, gaur ez nago atzo bezala, aizu. Eta zer gertatu zaizu, ba, Sinda? Zergatik zaude horren goibel? Senarraren ahotza entzun dudala janaria prestatzen nenbilela. Eta zer esaten zizun, ba? Bere betiko kontu batekin zebilen,

txipiroiak plantxan tintan baino gozoagoak direla. Ez ote naiz erotzen hasita egongo? Zer dela eta erotzen, emakumea? Aizu, nire senarra hilda dago.

**Adiskide** hilaren telefono zenbakia agendan oraindik, sentsazio oso bortitza, bere eskuz idatzitako telefono zenbakia.

Hiletetara joatea aspergarria izatetik mingarria izatera pasatzen da noizbait. Harrezkero, beti da mingarria, norberaren hiletara izan ezik, noski, baina gaur egun jadanik ez gara izaten norberaren hiletan; edota errauts bihurtuak azaltzen gara.

Telefono deiari erantzun, eta hark gure izena esango duela pentsatzen dugun sasoiaren ostean, izena esan dezan nahi dugun sasoi dator, eta gero ezereza; eta orduan hasten gara ahots hura gogora ekartzen, bozaren ñabardurak argi sentitzeko ahaleginak egiten, ahaztu ez dugula ziurtatzeko.

Adiskide hila: biok elkarrekin bakarrik igarotako uneak oroimenaren kutxako bitxi ederrenak dira. Baina oroimenean hutsuneak daudenean, ezinezkoa da dagoeneko hutsune horiek betetzea biok bakarrik

egon izan bagara une hartan. Adiskideak ezin ditue-  
nez bete, betiko galdu dira falta diren bitxiak.

Horrek badu bere alde kontsolagarria, eta da  
gezur itzelak konta ditzakegula, ez dugulako nork kon-  
tra egin. Hori bai, argi ibili behar da adiskide desager-  
tuen kasuan, gorpurik agertzen ez den artean behinik  
behin. Zelan zen gizon hura etxean agertu zena, ez  
dakit zenbat urte kanpoan eginda, emazteak hiltzat  
zeukana? Bai, *Australiatik ere entzun izan ditut nitaz  
esan dituzunak*, bota omen zion. Emazteak, makala ez  
zena, *belarri hain ona izanda ez duzu entzun zure hi-  
leta-ospakizuna zorretan daukagula? Joan zaitez berri-  
ro zatozen lekura, ez baduzu berpiztu eta gero ordain-  
du gura*, erantzun ei zion.

**Baina** gu ez gara hemen protagonistak, Sinda baizik,  
berak aurkitu baitzuen pendrivea.

Lau karpeta ikusi zituen lehen klikadan. Bigarrena-  
rekin *Emaztea* zeritzon karpeta ireki zuen: bideo bat,  
klik, emakume lodikote bat, gona altxatu du, ez du  
ezer azpian, zumitzezko eserleku baten jarri da, han-  
kak aulkiaren besoen gainetan kokatu ditu, eta eskuin  
eskuarekin harpa jotzen hasi da, berehala entzuten

dira hasperenak; Sindaren begiak irudi mugikorrera itsatsi dira, emakumea ezagutu nahi du, baina ezin. Beste karpeta bat: *Seme-alabak*, pantaila ireki da, bi morrosko eta panpina bat, «Congratulations, daddy, we love you so much». Hirugarren karpeta: txakurra kaka egiten, umeen barreak, txakurra kaka estaltzen, buztana ikaran, badoaz etxe barrurantz, atean lehengo emakumea ageri da irribarretsu, ezkerraldean txakur txabola bat, POPPY sarreratxoaren gainean, umeak eta txakurra barruan dira, emakumea ere badoa, baina laster erratza eta palarekin atera da, eta kaka batu du. Klik, azken karpeta: Sindaren senarra ospitalean, ohean emakume potoloxka jaioberri batekin, lehengo hiru haurrak ohe-bueltan jaioberriari begira, senarraren poz-aurpegia kamerari begira, emakumearen poz-aurpegia gizonari begira. Sindaren lelo-aurpegia irudiei begira.

# Ihesi dabilenak maitasuna behar du lagun

Marko, maite-maitea,

Zenbat denbora igaro den azkenengoz elkarrekin egon ginenetik... Orain konturatzen naiz zein arin joan diren niretzat egunak, eta hilak.

Juliaren etxean izan zen. Trikliniutik erori hintzen konortea galduta. Hasieran nik hire ohiko txantxaren bat zela pentsatu nuen, baina gero aztoratu egin ginen denok, sekula ez hindugun Bacchusen horren menpe ikusi. Medikiak gehiegi edan huela esan zuen; gehiegi denok edan genuen.

Badakit ez dugula hitz egin harrezkero; ondotxo igarri nuen hire narraskeriaren zergatia. Nazka eman hidan, destaina egin nian, eta bertan behera utzita, alde egin nuen; Juliaren harridurarako. Kontatu egin hion? Hik agian, ez; nik agian, bai, nik kontatu egingo niokeen, eta Veleia guztiak gure berri izango zukeen oilarrek kukurruku egin baino lehen.

Zer moduz hago? Gure etxean jarraitzen duala badakit. Plinius, aita, hil zela ere badakit, Juliak jakinara-

zi zidan. Barkamena eskatzen diat bihotz bihotzez, ni ez nengoen amorante etsi baten penak jasateko prest, soina eta espiritua maitasunez hanpatuta nituen, eta ondo dakian bezala, ez zen higanako maitasuna. Barkaidak, maitea, barkaidak, arren.

Har ezak astia, ene Marko laztana, lasai irakurtzeko gutun hau, ez iezaiok sua eman osorik irakurri arte, gure zorionaren eragile izan daiteke eta; berriro elkartuko gaituela ziur nago eta.

**Zenakulu** hartatik atera orduko nire bizitzatik bota hindudan; kaka hutsa bihurtu hintzen niretzat, eta, hala, egotzi egin hindudan. Orain kaka haren aztarnen bila nabil, eta aurkituz gero, miazkatu eta jan egingo nituzke.

Nire zoritxarra kontatzera natorkik, Marko ene kultura, eta argi eta garbi azalduko natzaik, zer gal nezake mina eginda badago?

Ez diala ardura? Jadanik ez nauala maite? Ez diat sinesten. Urtebete izango da laster, Veleiatik alde egin nuela. Ez da gurea bezalako maitasuna ahazteko beste denbora igaro. Bestalde, Juliak jakinarazi dit ez diala orain adiskide minik ezagutzen. Neu izango ahal

naiz berriro hire adiskide min-mina! Hire ezezkoa irudikatze hutsak bihotza lehertzen dit taupada bakoitzean, ezingo nuke jasan, maitea.

Pergaminoa bustitzen ari naiz negar-anpuluez, hi haizela nire benetako amorea ikusten dut orain, hain argi... Zer gertatu zitzaidan? Nola erori nintzen haren sarean hi ondoan izanda? Malefikua egin zidan, ziur naiz. Bestela, nola?

Hurrengo egunsentian Flavius Enekonisen atzetik joan nintzen Erromarantz. Constantinusek bere exertzitua deitu zuen borrokarako, eta Flaviusentzat aukera ezin hobea izan zen. Sei urte lehenago Constantius gaixorik hil ondoren Caledonian, Eborakon Constantinus en proklamationean egon zen Flavius -handik zebilelako piktuak mendean hartu nahian- gazte-gaztea, gudetan hasi berria. Harrezkero Constantinus en aldeko kohorteetan aritu izan da.

Maxentius en kontra gindoazen orain Erromara, irabaztera. Flavius, aldi berean, bere guda pertsonala prestatzen ari zen, bere asmo bertsuak zituztenei aurrea hartzeko, Cohors I Galicaren zenturionea izan nahi baitzuen.

Cohors I Galica betidanik ezagutu dugula gure iruñan, esan beharrik ez daukat; legionariokin, ordea,



ez dut harreman esturik izan inoiz, ez bada larrutaldi bat edo besterako, baina Flaviusez maitemindu ostean gure kontubernia haiek ezagunak bezain maiteak bihurtu zitzaizkidan. Aitzakiak bilatzen nituen harantz abiatzeko, eta gehienetan aurkitu egiten nituen, dela scripturen baten zehaztasunak jakin nahian, dela tabularen bateko tokiren baten ezaugarriak idatziz gehitu guran, eta baita ere Julia maitasun kontuetan laguntzeko asmoz, gure adiskidea beti izan da-eta hangoek erakarria. Ekin eta ekin, azkenean Flaviusen arreta lortu nuen. Esango didak harritzen haizela horrenbeste ahalegindu behar izanaz nire itxura kontuan izanda, beti oso erraz erdietsi baititut nire maitaleak, baina Flaviusek ez zituen gizonezkoak gogoko. Zergatik, orduan, tematu nintzen hainbeste?

**Ni** ez naiz veleiatarra jaiotzaz, askotan azaldu diat; nire scientiak etekinak emango zizkidala, eta ondo etorriko zitzaidala giroa aldatzea esan zidan Juliak duela zenbait urte -orduan ere maitasuna zela-eta ihesi nenbilenean-.

Gure Juliaren izaera oso zabala da, denetarik kabitzen da haren bihotz ikaragarrian, eta hala ekarri zuen

nire soin ahuldua, maitasun minek ahitua, Popearen etxera. Han aritu izan nintzen grammatiku gisa hango Martzelus gaztearekin, eta paedagogu gisa haren anaia-arreba gazteagoekin. Haiekin ikasi nuen zuen hizkuntza maitagarri hau. Julia izan zen, baita ere -goratuko duk, laztana- geroago guk biok elkar ezagutzeko aukera eman ziguna.

Nola gozatu genuen grafitoak egiten horma hartan! Laster bota zuten eraikin berria egiteko; gure 'arte-margolanak' betiko galduak! Horma haren aurrean egin zituen aurkezpenak Juliak, eta handik gutxira, besarkatuz, elkar musukatuz eta laztanduz, horma hartara gure gorputzak jaurtiz, hik gero nik, zirkuluak egin genituen airean, sabaitik begiratzen gintuen Martitz zaharkitu hark ikusi ahalko zituenak; horma hotzak gure bizkar eta papar beroetan talka egin zuen behin eta berriro gure desideria ase arte.

«Bagauda horrekin ikusi zaituztet, eta ez da lehen aldia», esan zidan behin Flaviusek higatik eta nigatik, «latrone horiek denak akabatuko ditugu, eta hire lagun hori ere bai». Hasieran beldurtu egin banintzen ere, nire itsutasunean jeloskor zela pentsatzera iritsi nintzen.

Orain ni nago jeloskor hire bagauda hura dela-eta; badakit ez direla lapur hutsak, eta hi beti ikusi haut euren kausaren alde, ez baihaiz inoiz eroso sentitu inperiuaren menpean. Ez duala inor diost Juliak, baina askotan gogoratzen ditut hire eta haren arteko irribarre eta begirada goxoak. Marko, mesedez, ez! Hemen nago ni guztiz hirea, har nazak oso-osorik, gorputza eta anima, soina eta espiritua, hiretzat betiko.

**Cannabaetan** biziko nintzen ni kanpainak iraun zuen artean, han kokatu ninduen Flaviusek artisau, merkatari, prostibulu ibiltari eta senideen artean. Badakik zein zorrotza den legioetako araudia, guda sa-soian are zorrotzagoa bihurtzen dena. Oso zaila egin zitzaidan niri baztertze egoera hura; ondokoek galde-tzen zidatenean zer dela-eta nindoan beraiekin, ez nuen jakiten zer erantzun, beraiek, ordea, zeregin garrantzitsuren bat izaten zuten beti, bizian aurrera egiteko folisak lortzen lagunduko ziena; edo, aita edo senarra izaten zuten gudari haien artean, guda galduz gero, beraiekin batera galduko zuten askatasuna, edo bizia bera. Eta nik ere bai; baina ezertxo ere ez egi-

teaz gain, ez nuen han aitarik, eta are gutxiago senarrik.

Flaviusek ez zuen handik nenbilela jakin zezaten nahi. Nik oso ondo ulertzen nion, curriculumak jokatzeko ari zen, bere etorkizuna jokatzeko, eta nik nirekin batera ikusten nuenez bere etorkizuna, ez oztopatzen saiatzen nintzen, bere urratsak eman zitzaizkidan nahi nuen, ni zain ninduen artean. Tribunoa bere alde izatea zuen helburu, laster erretiratuko zen Domicius zenturionearen lekua hartu nahi baitzuen.

Horregatik, samatik esku biekiko estu hartu ninduen goiz hartan, bere senetik aterata zegoen. Orduan bai, orduan bera etorri zitzaidan bila, ez zuen ezkutatu beharrik, antza. «Ergel hori, zingulua ken diezadaten nahi duk?» galdetu zidan bortizki. Hura ez zen nik ezagutzen nuen Flavius, hura ez zen nik maitatzen nuen gizona.

Emazte bat egin nuen adiskide, hark eman zidan Flaviusen ibilaldien berri. Thermetara egunero ordu berean joaten zela jakin bezain laster, hurrengo egunean han nintzen ea oraingoan hitz egitea lortzen nuen: nonbait elkartu behar genuela erregutu nahi nion, ezin nuela gehiago, beste batzuk ere gure antzeko egoeran zeudela, eta begiraleek ezikusiarrena egi-

ten zutela gehienetan, ea zergatik izan behar zen desberdina gurea. Irudikatzen nuen erantzuna: ez genuela inongo hutsik egin behar; horrenbeste maite banu, ulertuko nukeela eta jakingo nukeela egoera ondo eramaten...

Palladia Tolosa zen orduan gure atsedeen-lekua. Tepidarian aurkitu nuen, tribunoarekin batera, biak bakarrik zeuden. Tribunoak «Hi hemen!» bota zuen ikusi ninduenean, ezustekoa izan zen harentzat, ezusteko atsegina, gero jakin nuenez. Baina Flaviusentzat ezusteko malerusa izan zen, bere aurpegi izutua gogoratzen dut: fascia zuria lortzeko ametsa zapuztuta ikusi zuen nonbait.

**Sei** hilabete egin genituen guztira, udaberritik urriaren amaierara arte, Pons Milviusen irabazi genuen arte. Tribunoak ikusi ninduenean hasi zen nire zoritxarra. «Gazte hori higitik etorri da gudara?» galdetu omen zion Flaviusi. Hark «Ez, higitik», erantzun omen zion, «nigana jo zuen hi ezagutzeko». Harrezkero tribunoarekin oheratzen hasi nintzen nire gogoaren kontra. Flaviusek «Gu biok salbatzeko era bakarra da», esan zidan, «eta baita ere gu biona salbatzeko era»;

gu bion arteko adiskidetasuna esan nahi zuen, zeren larru konturik ez zen inoiz izan gure artean, bere «Egun batean, agian» esaldi maltzurak itxaropenaren sarean harrapatuta ninduen.

Prima portatik gertu jarri zuten basea azken gudarako. Tribunoaren inguruetan nenbilen ni gehienetan, bere atzaparretan gatibu. Opari ederrak egiten zizkidan, baina oparia neu izan nintzen, ene Flavius gaiztoak egindako opari bikaina. Niri ere egin zizkidan opariak Flaviusek: behin besarkatu egin ninduen pozarren, eta «la lortu dugu, oso gutxi falta zaigu» xuxurlatu zidan belarrira, bion arteko komertziua bailitzan; bera saltzailea zen baina ni saldua... Zital hala-koa!

Hi, Marko, haren aldean zoragarria haiz. Ez nindukean inoiz engainatuko, ez hidakeen gezur bat bera ere esango. Ez dakik koldarkeria zer den. Ez dut inor ezagutzen hi bezain artezik sentimendu kontuetan.

Besarkada hark eta beste horrelako laztan bartzuek bizirik mantendu zuten nire esperantza, eta tribunoaren besarkada eta laztan lizunak jasateko indarra eman zidaten.

Libertua izanik esklabu jokatu nuen. Ene aitak askatasun bat erosteko beste zeukan, eta nirea aukera-

tu zuen. Baina nik ez dut, itxuraz, askatasunean bizitzen ikasi. Ez dudala aitaren oparia merezi usteko duk hik. Badakit ahula naizela, ez izanak izatera bultzatzen nauela, eta salneurriari ez diodala begiratzen. Baina ez dakit beste era batera jokutzen. Nik ez dakit borrokan egiten, Marko; hik bai, hik ondo erantzun hion pretorianu mozkor hari biotako zein erdituko zen galdetu zigunean: taberna hankaz gora jarri huen.

Garaipenak erotu egin gintuen. Erroman sartu ginen jaun eta jabe Maxentiusen gorpua, Tiber ibaian ihesian itoa, aurrean generamala. Egunean bertan proklamatu zen Constantinus inperator.

Cesareako Eusebius berehala zabaltzen hasi zen, Constantinusek guda baino lehenago gurutze bat ikusi omen zuela argitan, eguzkiaren gainean, **grekera** hitzekin, hau da, in hoc signo vinces. Hasieran ez omen zekien zeri zegokion mezuori, baina gau horretan Christusekin egin omen zuen amets, esaten ziola zeinu horrekin eraso eginez gero garaile irtengo zela. Badakik, Marko, chirstinuen esamesak niri, hiri bezala, ez zaizkidala axola, baina Popea pozik jarriko da ipuin hori entzutean, seme-alabei txikitatik irakatsi baitizkie haien zeinu eta manamenduak.

Erotu egin ginen, bada, pozez erotu, bereziki Flavius, helburuak gertu ikusten baitzituen, nahi zuena baino gehiago lortuko zuela uste zuen orain: guda hura irabazteak ekarriko zionaz gain, nik egindako lanak ere laguntzen zuela ondotxo ohartzen zen, inoiz eskertu ez bazidan ere. Nik ez nuen aukerarik galtzen tribunoari nire maite maltzuraren ahalmenak gores-teko; bere fideltasuna, prestutasuna eta umiltasuna aipatzen nizkion, neure buruari ere sinetsarazi nahian. Zein inozoa nintzen!

Noiz ikusiko dugu berriz elkar, Marco nirea? Beso ar-tean hartu gura hinduket, estutu bion bihotzak elkar ukitu arte, bat egin arte. Txori eria bezala zainduko haut, laztana, teilatutik eroritako txori hura hik zaindu huen bezala.

Malefikua desegin da, maitea, aske naiz, eta hire-kin bizi gura ditut hemendik aurrerako urteak; gure ametsa bete nahiko nuke, Gebarako herrian bizi, hire etxean, gurasoei jarraiki.



**Aste** batzuk egin genituen Erroman jai giro eta gehiegikeriatan. Jan, edan eta haragiaren plazeretan. Flavius ez zitzaidan behin ere gerturatu, desagertuta zebilen. Nik bilatu eta bilatu egiten nuen tribunoak atsedeen ematen zidanetan. Etsiturik, azkenean honi galdetu nion hartaz, ez ote zuten beste kanpaina batera bidali; baina ez ote zuen ni gabe Veleiarako itzulbidea hartu, edo andreren batekin maiteminduta ote zebilen zen nik benetan galdetu nahi niona. Ez nintzen ausartu. Ez zekiela ezer erantzun zidan, ez arduratzeko hartaz, Erroman geratuko ginela biok, nahi nuen guztia izango nuela berarekin.

Prima vigilian, gauero legez, tribunoaren gelara abiatu nintzen. Egunean zehar lanpetuta ibiltzen zen, eta ni azoka eta tabernetan ibiltzen nintzen, batetik Flaviusen berri nonbait izateko esperantzaz eta bestetik tribunoak ematen zidan dirua xahutzeko asmoz. Han erositako jantzi eta bitxi ederrak ditut hiretzat, Marco.

Atea itxita zegoen ohi ez bezala. Maratila bihurtzean zarata egin nuen arren ez zen irekitzera hurbildu, nahiz eta barruan norbait entzun nuela iruditu zitzaidan. Atea jo nuen behin eta berriro, baina ez zen inor ageri. Beste norbaitekin zegoela argi zen; beraz,

miseriara jaurtiko ninduen laster. Nire pentsamendua irakurri izan balu bezala atea zabaldu eta «Joan hadi hemendik, papaoa» bota zidan, «ez hadi gehiago nire aurrean agertu, ez baduk lehoi artean amaitu nahi».

Aspaldiko sentipena izan nuen, esklabo zebilenari esklabo tratua eman zion hark. Negarrez igaro nituen hurrengo orduak; baina ez nintzen joan. Egunsentian atea karranka egin zuen, eta gizon ederra atera zen, gizon ederra nazka aurpegiarekin. Nitaz ohartu zen, eta nazka gorroto bihurtu zen, bere izena esatera nindoanean bultza egin, eta lurrera bota ninduen bortizki.

Flaviusek duintasuna galdu zuen gau hartan. Tribunoak niri egin zidana egingo balio, ez luke ezer lortuko, hainbatean irabazi beharrean, galdu egingo luke, eta nik baino gehiago gal lezake, azken batean ni liberto ziztrina baino ez naiz.

**Veleia** inguratuko duen harresia datorkit gogora, honetzero eraikita egongo da. Babesa ala askatasun eza? Barbaruen beldur omen gara...

Euskara amaitzen den gunean jarriko luke harresia hire bagaudak, ez ezak pentsa ez dakidala zertan

ari zareten, baina zuen askatasun nahiak askatuko nau ni ere uzten badidak, zeuekin batera eramango nau, bagauda bihurtuko banau ere.

Erantzun egidak lehenbailehen, laztana. Ezin diat oraingoz gehiago esan, Juliak hire onespena ekartzen didanean, nire berri jakingo duk berriz, nire zoritxarren berri. Alferrik izango da azaltzea zerk naukan ezkutuan onartzen ez banauzue. Ihesi dabilenak maitasuna behar du lagun, horregatik eskatzen diat hirekin eramateko. Badakit Flaviusek zuengana joko duela nire bila, behar den beste legioren laguntza lortzea ez zaio bat ere zaila egingo bagauden tumultuak aitzakiatzat izanda. Beraz, nirekin edo ni gabe, gertu egon behar zenukete.

Zaindu hadi, ene kuttuna, eta erantzun iezadak berehala. Hi haiz ene esperantza bakarra, Marko, maite-maitea.

## Oharra

Latineko deklinabidean deiki edo bokatibok *Marko, maitea*, eskatzen du, horregatik azalduko da hala eta ez *Markus, maitea*, euskarak

eskatzen duen legez. Protagonistaren ikuspegi berezi moduan har daiteke, hizkuntzen gurutzaketatzat, gaur egun ere holakoak egiten ditugu, ezta? Gainera, *u o* bihurtzeko bidean bokatibok zerikusia izango zuen.

*Hi* erabili dut eta ez *zu*. Zu noiz bihurtu zen zuek, ez dakigu.

Costantinus Konstantino Handia edo Konstantino I.a moduan ere ezagutzen da mendebaldean, Konstantino Deuna moduan ekialdean. Maxentius gudan erail ondoren 312an, bere koinatu Litziniorekin bat eginda, Maximino erditik kentzeko modua aurkitu zuen urtebete geroago: batzuek bere buruaz beste egin zuela diote eta beste batzuek pozoituta hil zela. Horrela inperioaren mendebaldea Litziniorentzat geratu zen eta ekialdea Konstantinorentzat. Azkenik, Konstantino, Litziniori irabazi ondoren 325ean, bakarrik agintzen jarri zen. Bizantzio, gaur egungo Istanbul, inperioko hiriburu bihurtu zuen izena aldatuz: Nova Roma edo Konstantinopla, hau da Erroma Berria edo Kostantinoren polisa edo hiria. Constantius bere aita izan zen.

Konstantino Handia izan zen kristautasuna onartu zuen lehen enperadore erromatarra.

314an eliza kristaua legalizatu egin zen, eta legalizatzeaz batera, eliza kristaua paganoak erasotzen hasi zen. Eta latina inposatzen.

«Contubernia» (pl.) legioaren barrakoiak ziren. «Cannabae» (pl.) legioaren asentamenduei deitzen zieten.

«Bagaudae» (pl.) borrokalari edo lapurrak, ikuspegiaren arabera. III. mendean hasi ziren bagauden erreboltak.

«Follis» txanpon mota bat zen.

Palladia Tolosa gaurko Toulouse da.

«Zingulua» (cingulum militare) legionarioek erabiltzen zuten gerriko berezia zen. Hura erretiratzea zigor mota bat zen.

«Fascia» sabelaldean eramaten zuten begizta zen. Kolorearen arabera bereizten ziren, zuria tribunoena zen.

«Prima vigilia» seietatik bederatzietara arteko tartea. Gaua vigiletan banatzen zuten.

Azalpen historikobatzuk ematera behartuta sentitu naiz, argitasun historikoak ipuinean bertan sartzeak erritmoaren aurka egingo zukeen eta, ipuin hauen helburua ez baita ipuin historikoak izatea, historiako aro zehatzetan gertatutako maitasun istorioak izatea baino.

## ETORKIZUNA

**Umeak** ere hil egiten dira. Ez daude gehiago. Alferrik bilatzen ditugu argazkietan. Alferrik bilatzen ditugu oroimenean euren keinuak. Hil egin dira eta nerabeak sortu dira euren lekuan.

Nerabeak ere hil egiten dira, eta gazteak sortzen dira euren ordean. Orduan, gazteak libre uzten ditugu. Etorkizuna asma dezaten.

Etorkizunak ez du itxaroten. Egunero sartzen da gure bizietan, begirale, zer egiten dugun zain, piezaz pieza atontzeko geroaren puzzlea, eta gu, gehienetan, ez gara ohartzen. Gero, etorkizunean, baldintza erabiltzen dugu damua edota zalantza adierazteko; lehenaldian erabili behar, erremediorik ez duen aditz denboran.

Hitz egiten ari nintzaizunean, entzun nizula adieraztera eman izan ez banizu, *ez dizut jaramonik egin, beste zerbait neukan buruan* aitortzeko betarik hartu izan banu, ez zinatekeen nirekin betiko haserretuko, ez zintuzkedalako giltzarik gabe kanpoan gau osoan etxera sartu gabe utziko; *ez dizut ulertu* aitortzeko lotsarik izan ez banu jarraibideak azaldu zenizkidanean,

ez nintzatekeen mendian galduta ibiliko ordu luzeetan zehar.

Senargaiak Sindari egia esan izan balio noizbait, hobe hasiera-hasieratik, ez ziokeen denbora galtzen utziko; baina egia ezkutatu izan ez balio, senargaiak ez zukeen bi familia izango, ez zukeen bi andre izango, ez zatekeen bigamoa izango, eta horixe izan zen bere aukera: biak ala biak, eta ez bat.

Nik ere biak eduki nahi izan nituen: txakurra eta katua. Baina ez ziren ondo konpontzen. Bizitza eta heriotza ondo konpontzen ez diren moduan.

Heriok kolpea jotzen duenean lehenaldira joan nahi izaten dugu zuzenean, inongo baldintzarik erabili gabe, ez oraingoa, ez lehenaldikoa, ez alegiazkoa. Baina lehenaldiak ez dauka atzera egiterik.

Etorkizuna ametsen aditz denbora da. Gure egunerokotasunak geroa guztiz mugatuta, guztiz giltzapetuta badu ere, dena egitear ikusten dugu, dena posible. Esperantzaren denbora da. Orainean bete ezin ditugun asmoei hegoak jartzen dizkiona.

Adin batera arte. Bizitzan, halako batean, bihurgune bat hartzen dugu, bidaiaren amaierarantz. Herio jadanik besoak zabalik dugun seinale. Gurekin bidaiari doazenei eskertzeko unea heldu da, bidaiari jarri gin-



tuenei eskertzeko, edo kontuak eskatzeko garaia. Bidaian utziko ditugunean laguntzeko sasoia.

Lehenaldira begira egiten ditugun ametsekin oso ondo pasatzen badugu ere, ameskeriak besterik ez dira.

Lehenaldira begiratu behar da, ordea, oraina ulertu eta ezagutu nahi bada; era berean amorante maitatuena legez zaindu behar da oraina, etorkizunik nahi badugu.

# Burdinazko besoa

**Dorretxerako** eskaileretan gora egin zuten gizon gazte biek. Goiko harrabotsa entzuten zen, andre eta umeena batez ere. Arrapaladan zetorren anderea goitik behera, hangoengan arreta jarriz oraindik. Gelditu egin ziren gizonak, pasatzen uztearren. Andereak burua zuzendu, eta so egin zien: garaiera bertsua zuten; urdinak ziren bien begiak; sudurra eta kokotsa tankera berekoak; ile-kirru luzeek bekokiak eta masailak estaltzen zizkieten, batarenak urre argia ziren, eta bestearenak gaztaina ilunak; bata egunsentia, bestea ilunabarra, egun bereko egunsentia eta ilunabarra.

Bien begiradak nabaritu zituen aurpegian, soinean; urrezko adasdunarenak inguratu egin zuen, hartu egin zuen. Bihotzak hasperen ezkutua egin zion. Maila guztiak jaitsi arte jarraitu zioten begirada haiek.

Gero, dorretxera itzuli zenean, gela nagusian aurkitu zituen senarrarekin. *Andere Urrike, nire emaztea* aurkeztu zien. Nafarroatik etorriak ziren, jaun Ontzalu Baztangoa, adats argiduna eta bietarik gazteena, eta bere anaia Johango.

Berriro bere begirada urdin zabala sentitu zuen, begirada haren sarean harrapatu nahi zuen gizon gazte hark. Ezin zen bat-batean joan, ihesi egin nahi bazuen ere. Zalantza igarri zion hark. Andereak protokoloari jarraitu, eta beraiekin eseri zen.

Gizon hark ez zion goitik so egiten, ez zion artean desio lizunez so egin, norbere buruaz segur dagoen harrotasuna zerion, eta era berean umil ageri zen. Bere begiradan mirespena eta jakingura nabari ziren.

Senarrak azaldu zion gero, ama biko anaiak zirela; hogeitaka urteren erdira heldu gabeak oraindik, lau urteko aldea zutela. Biek ama umetan galdu zutela, eta inude berak hazi zituela. Horregatik, beharbada, hezur eta haragi ziren. Ontzalu zen leinuko jauna, Johango sasikoa zen-eta. Ez zen asko aita galdu zutela.

Bazkaritan ume-barre, ontzi-zarata eta ahotsen artean, haren begiradak sortzen zion doinu goxoa nagusitzen zen.

Senarrarekin hamalau urte zeraman etxe hartan, hamazazpi urterekin ezkondu zen bost urte zaharra goa eta ordurako etxeko nagusia zenarekin. Ez zuten seme-alabarik izan. Senarrak ondo baino hobeto tratatzen zuen beti, ez zegokiolako sasikumerik hainbatean, eta horrek agerian uzten zuen norena zen ezin-

tasuna. Hamalau urteotan elkar maite izan zuten. Seguru eta lasai bizi zen; ume faltan astia zeukan, eta inguruko beste etxandereek egin ezin zituztenak egiten zituen berak.

Horrela ba, zaldi gainean edonora joateko gauza zen. Askotan bakarrik abiatzen zen itsasertzearaino olatuen joan-etorriari begira egoteko. Itsasoak zer ekarri eta zer eraman ahal duen irudikatzen zuen. Durangoko alaba zen jaiotzaz, eta etxean entzuna zuen askotan, bizkaitar bihurtu zireneko ezbeharra, aititak eta gero aitak ere, borrokan egin zuten gaztelauen aurka, asko galdutakoak ziren bere sendikoak. Horregatik, itsasoa adiskidez, aberastasunez eta maitasunez beteta zeterrela irudikatu nahi izaten zuen arren, batzuetan etsai gupidagabeez jantzita ageri zitzaion. Orduan, eta beste askotan, dorretxetik hurbil zegoen osinera joaten zen, eta uda partean gorputza busti, eta, inor ez bazegoen, bainatu ere bai.

Osinak ur-jauzi txiki bat zeukan iraz inguratua. Kolore urdin-berde hura nahi izan zuen bere azken jantzirako. Ile argi-argia izan zuen txikitan, baina jadanik lurraren kolorea hartua zion, lur busti gabearena.

Jantzi harekin azaldu zen hurrengo egunean gosaltzera. Gizon gazteen atsegina nabaria zen. *Ez nuen*

*jantzi behar* pentsatu zuen, eta lotsaz igaro zituen lehen uneak hizketaldiak bere arreta guztiz hartu zuen arte: Nafarroako Blanca erreginak etxe bakoitzari zegozkion hamabi diruak ordaintzeaz askatu zituen Vianako biztanleak, eurek eskatuta sari gisa, Gaztelako infante Fernandok hiribildua hartu nahian setiatu egin zuenean hain gogor eusteagatik...

Ez zuten gizonok gaua bertan igaro, hurrengoetan egingo zuten bezala.

**Goizeko** freskuran atera zen kalera, ohi baino apurtxo bat arinago. Gosaldu baino lehen itzuliñoa egiten zuen txorien txioen artean. Basotxiki goiko zelaian iruntza bazegoen, abarkak erantzi eta ortozik ibiltzen zen, oso osasungarria zela entzuna baitzion amari, eta honek amamari. Goiz hartan, ordea, ez zuen basotxo hura zeharkatzeko astirik izan.

Esku bat sentitu zuen aurpegian ahoa eta sudurra estutzen zizkiola zapi batez. Konortea galdu zuen.

Iratzarri zenean, aurpegia eta gorputza beste gorputz bati itsatsita nabaritu zituen. Haragi trinkoa zuen gorputz hark, gaztainondo gaztearen enborrak hala-xe. Biek, besarkaturik, jauzi egiten zuten. Zaldi gai-

nean zihoazen. Zangalatraba gizonaren izter gaine-  
tan, burdinazko besoak batzen zion gerria. Ira usaina  
zerion haren sorbaldari. Lobelarrak eragindako zora-  
bioa igarri zuen begiak zabaldu zituenean. Larriari eu-  
tsiz, gizonaren bular gainean zetzan burua goratu  
egin zuen. Ile kirrudun argiek distira egiten zuten  
eguzkipean. Bihotza eurekin saltoka hasi zitzaion.

- Traidorea! Lotsagabe zital halakoa! -zer nahiko  
zuen trukean?; ausardia behar zen!-. Itzul nazazu  
etxera, utz nazazu hartu nauzun lekuan!

Aginte berbok eragina izango zutelakoan esan zi-  
tuen, hasierako ustekabeak eta ondoko ezintasunak  
sortutako estutasunari aurre egiteko; senarrak laster  
harrapatuko zituen itxaropenak indartu zuen.

Baina estutasuna areagotu egin zitzaion gogoratu  
zuenean beste batzuetan baino goizago abiatu zela  
egun hartan, ez zuela inork ikusi joaten, eta horrega-  
tik ez zutela bere falta sumatuko ordubete edo gehia-  
goz, eta ohean zela oraindik, edo azokara joana zela  
usteko zuten; senarra ere ez zen arduratuko zati ba-  
tean. Denbora luzea galduko zen hartan horretan. Bel-  
dur ikarak hartu zuen.

- Itzul nazazu etxera, arren -erreguari oratu zion.

- Ez, ez zaitut itzuliren. Gurekin eramaten zaitugu.

Anaia ondoan zetorrela ohartu zen, bekatari damutu aurpegiarekin begiratu zion, eta hasperen egin zuen.

Gizonak hitzok samurki esan zituen. Traidore sentitzen zen, baina argi zituen asmoak, nekez garbatuko zen.

- Ezin hobeto hartu zaituztegu, adiskideak zinetelakoan geunden, zelan izan ahal zarete hain esker txarrekoak!

Zintzotasunari tira egin nahi izan zion azkenik, etsipenez. Ahotsak dar-dar egin zion. Ez zuen erantzunik jaso.

Gizon haien aitarekin hasi zen salerosketan senarra, bere meategietatik ateratako burdina saltzen zion, orain, aita hil geroztik, jaun Ontzalurenak ziren burdinoletan urtzeko.

- Nor dago honen atzean?

- Ez ezazu pentsa holakorik. Gure etxea ez da inoiz Harokoen aldekoa izanen.

Hala uste izan zuten eurenean beti. Bizkaiko jaunaren aurkako berbak entzun zizkien gazte haiei Muskizera etorri zirenetan, gaua bertan igaro zuten seni-

deko gisa, eta afalondo luzeak egin zituzten honetaz eta hartaz arituz.

- Zer gura duzu, orduan?

- Zeu nahi zaitut.

Hitzok zirrara txiki bat eragin zioten. Sentitutakoaz lotsaz bezala, *ez, ez dut ondo ulertu, ezin da izan*, aritu zitzaion bere buruari. Egoera txorrea iruditu zitzaion hura. *Ni ez nabil zuzen, eta hau ez dago burutik sano.*

Ez zen ausartu ezer gehiagorik esaten, eta bidea isilean egin zuten luze batean.

Eguerdia orduko gelditu egin ziren hankak luzatzeko eta atsedean hartzeko. Lurra ukitzeaz batera ohartu zen mugitu egiten zitzaiola, ezin zen artez ibili. Johangok besotik oratu eta aurpegira begiratu zion.

- Ongi al zaude, anderea?

- Ez, ez nago ondo, hobe nengoke etxean.

Haren ahoaren keinuak hitzok min egin ziotela erakutsi zuen. Anaiaren desioa betetzen ari zen.

- Nora naramazue?

- Etxera.

Euren etxera zen, noski. Senarrarekin egona zen nafar erresuman, baina erdi aldeko lurraldeetan. Oso urrun egongo zen etxetik, leku ezezagunean. Gatibu



izango zuten? Noiz arte? Aspertu arte? Eta, gero zer? Hasierako zirrara txikiaz damutu egin zen. Bat-batean etsaien artean ikusi zuen bere burua: edozein unetan bortxaz hartuko zuten; gero nonbait gorde, nahi zute-nean erabiltzeko; azkenik, nekatutakoan, lapurren eta gaizkileen eskuetan utziko zuten txanpon batzuen truke. Irudiok bere senetik atera zuten.

Zoriak agindu zuen zaldiaren anekan aizto batek kirtena erakusten zuela. Sortu zitzaion laztura akabatzeko asmoz, indar handi batek hartuta kirten hari heldu zion, eta aiztoa bihotzerantz bideratu zuen. Esku batek geldiarazi egin zuen, eta aiztoa askarazi. Ziplo erorita, aiztoaren ondoan eserita aurkitu zuen bere burua. Beso batek berehala gerritik hartu, eta altxatu egin zuen. Johango zen. Anaia biek elkarri begiratu zioten une luze eta isilean. Aurpegi biek nahigabea erakutsi zuten.

Johangok anaiaren zaldira igo zuela gogoratzen du, ez daki zenbat denbora daroan erdi lo, hotzikarak eta izerdi hotza ditu. Gelditu egiten dira. Zalditik jaitsi dute, lurrean etzan dute, bere hasperenak entzuten dira. Ur pixka batekin busti dute oihal bat, eta bekokia eta masailak igurtzi dizkiote. Aspaldi galdu duen buruzapia da. Ez dute ezer bidean ahaztuta utziko, bide

nagusiak ekiditen dituzte, ez dute inorekin topo egin orain arte.

Negar txikiak egiten ditu gizonaren besoetan, ez du indarririk kopeta zutik mantentzeko, hark bere gorputzera estutzen du emeki, eta masailarekin laztantzen dio ilea. Zaldiaren abiadura biziak zangoak hozten dizkio. Ilunabarra da. Baso malkartsu bat igotzen hasi dira, han goian tximiniari kea darion etxola dago.

Atean gizon nagusi bat azaldu da. Jaun Ontzaluk barrura sartu du, eta sutetik nahiko gertu dagoen lastozko ohe baten utzi du.

- Mutilak, ez zenidaten esan emakumezko batenzatzat zela -entzuten da; gizona arduratuta dago-. Johango, ekar ezak ura tupinan eta jar ezak sutan. Eta hik, ken iezaioak jantzia, azkar. Gogortzen hasita zagok.

Andere biluziaren aurrean batu dira hiru gizonok, arnasa gabe daude zurtasun zoragarriaren aurrean. Zaharrenak gazteak berpiztu ditu.

- Arin, igurtzi egin behar duk -esan dio gazteenari-. Hasi hadi zangoetatik, irmo eta etenik gabe.

Bera sutondora joan da eta hango apal bateko pote batzuetan arakatu du, belar ezberdinekin sorta

bat osatu du, eta tupinan sartu du, irakin dadinean gaixoari edatera emateko gutxika-gutxika.

**Etxola** hartan igaro zituzten hurrengo hiru gau eta egunak. Egunsentiarekin anaia gazteak alde egin zuen; hirugarren eguerdian itzuli zen: beste zaldi bat, janaria, edaria, oihal eta jantziak zekartzan.

- Bidea ez zagok oso garbi -esan zion anaiari-, erromesak dituk gehienak, baina hobe iluntzera arte itxaroten badugu.

Gaizkileen muga zeritzon eremuan zeuden oraindik, Gaztela eta Nafarroaren arteko muga. Merinoak bere zaldun eta oinezkoekin partidak egiten zituen lapurren bila, aurkituz gero urkatu egingo zituen. Johangok ez zuen entzun andere Urrikeren desagerpenaren berri, noren eskuetan zegoen ez zekiten seinale. Euren onerako zen, baina ez zitzaien komeni etxetik kanpo luzaro egoterik. Ehizan zebiltzala esan zuen. Beraz, piztien bila atera beharko zuten.

Anderea ez zen oraindik tente egoteko gauza eraman zutenean. Aginduak argi utzi zituen Mattin Basok, belar haien ura edan beharko zuen ilargi betera arte, eta ur berotan bainatu egunero, harik eta gorputza

arindu arte. Eta gorputz hark erantzun egingo ziola ere esan zion Jaun Ontzaluri. Gizonak bihotza pozez beterik garraiatu zuen soin hura bere domeinuetaraino. Ez zuten Iruritako gaztelura jo, aurrera jarraitu zuten Otsondo aldera, han zuen beste etxalde bateraino.

Amaorde zuten Mariak *ai ene, ai ene* otoiztuz hartu zituen. *Zer egin duk, haurra?* errepikatzen zuen. Gela nagusian ezarri zuten; arratsalde erdirako, haranean zegoenik eta upel handiena ekarri zuten gelara, eta ur beroz bete zuten.

**Ilargia** oso-osorik dago. Jaun Ontzaluk eta Mariak tentuz jagon dute. Aldika Johangoren bisitak izan ditu. Honek irribarre goxoa erakusten dio ezpainetan, baina begiei errua darie. Gero, anaiarekin hitz egiten du luzaz, egoeraren berri ematen dio etsita: senarra erotzear dago, liskarrak areagotu egin dira ahaideen artean. Baina guztiz arduratzen duena anderearen egoera da: gorputzez onera egin badu ere, gogoz gero eta gaizkiago dago eta bizipoza erabat galdu du. Gizonari jasanezin egiten ari zaio. Alferrik da anaiari azaltzen ekitea, hura itxaropenak bizi du, eta maitasun itsuak.

Zerbait egin beharko du emakume hura bere onera ekartzeko. Gaur, zaldian txangoa proposatu dio. Haren masailek sasilarrosaren kolorea hartu dute.

Badoaz, igo eta igo ari dira, gizon gazteak txikitan handik ibiltzen zirela kontatzen dio, aitak eramaten zituela. Al-Andaluserako gurutzada aitzakiatzat hartuz, egoera berrietara ohitzea dela, diotso, bizirik jarraitze-ko sendagairik onena. Granadan ondo ikasi zuen berak hori aragoiarrekin joan zenean. Andereak ez du hitzik esan oraindik, laster Auzako ganara helduko dira. Hango ikuspegiak harriturik utzi du, harlauzaz egindako egiturak izpiritua baretzen dio instant batez. Han, behean, bide bat ikusi du, bide garrantzitsua iritzi dio, haraino helduko balitz... Eta zaldia suspertuz, beherantz lasterrean jarri du, gero eta lasterrago. Ezustean harrapatu du zaldun gaztea.

Arrapalada bizian doaz biak, zaldi-lasterrean. Bidera heldu dira, parean doaz. Gizonak ez duela etsiko konprenitu du andereak, berak ez diola eutsiko ere konprenitu du, eta zaldiari uhala lasaitu dio; arrapalada trosta bihurtu da, eta trosta paseoa. Itxaropena etsipena, eta etsipena negarra.

Zotinka hasi du itzulerako bidea. Johangoren hasierako asmoa zapuztu egin da, lehen baino gaizkiago

bueltatuko da anderea etxera ez badu zer bait egiten. Zaldiak gelditu ditu, eta mintzatu egin zaio: ezin dela bakarrik ibili Nafarroako bideetatik, lapurrek edo gaizkileek aurkituz gero, ez dela inoiz etxera itzuliko. Andere Urriek ez dio erantzun, etxera ez, lehenaldira itzuli nahiko luke, lasai eta aske bizi zen sasoir.

Afalorduan jaun Ontzaluk ez du ezer aipatu. Logelan egiten dituzte otorduak elkarrekin, xamurra eta gizalegekoa izaten saiatzen da beti, eta lo egiteko orduan bakarrik uzten du. Atea beti dago giltzaz itxita.

Hurrengo egunean xorroxin bateraino doaz oinez.

- Nahi baduzu baina zaitezke -esan dio-, putzu handi eta sakona dago xorroxinaren inguruan.

- **EZ** zagok haurdun, ez diagu inoren haurrik izanen -oihukatu zuen Mariak-, hilekoa etorri zaiok.

Berri ona zen hura jaun Ontzalurentzat, haurdunaldia oztopo litzateke, laster bereak ziren haurrak izango zituen. Horrelako asmoetan zebilzkion ametsak.

Andere Urrikeri Bizkaian utzitako sendiko umeak zetozkion gogora: zer usteko zuten?, zer esango zieten?

Hasieran, bere burua gosez eta egarriz hiltzen uztea pentsatu zuen, baina hiru haiek behartu egiten zuten zerbait hartzera, batez ere Mariak: bere aurpegi samurrean negar-arpuluak zerizkiola, *arren* erregutzen zion, beste bi haien gaiztakeriaren errudun bera bailitzan. *Mutil jatorrak dira* errepikatzen zion aldioro, *ez dakit nola egin duten hau, ai ene! Barkatuko diezu* ezagutzen dituzunean, *gure ttikia odol bero samarra da, baina zinez jatorra.*

Gero, ihes-saiakeraren ostean, jaun Ontzaluk eskainitako bainuak hartzen hasi zen, biak joaten ziren. Ur hotzak lehenengoz berpiztu egiten zuen, eta ondoren pixkanaka-pixkanaka logale jartzen, eta hori zen gehien eskertzen zuena, lo egin ahal izatea. Luzaroan egoten ziren xorroxinean, batzuetan ia ilundu arte. Ordurako egunak asko laburtu ziren, laster udagoien bertean izango ziren.

Kezkatuta zegoen gizon haren eroapenaz. Xorroxinera ez zen inor azaldu eurak zeudela, argi zegoen hala izan zedin ordena eman zuela; hala ere, ez zuen inoiz bortxaz hartzeko keinurik egin, ukitu lizunik ere ez, haren desioa nabaria zen arren; gaua ailegatzen zenean *gabon anderea, atsedeen har dezazula* esan, eta joan egiten zen.

Egunak hozten hasiaz batera, Jaun Ontzalu sorlekuan bazezilen, iluntzero afaltzen zuten lehen harena eta orain berea zen logelan. Egunez harekin edo haren anaiarekin egiten zuen txangoa zaldiz, edota oinez. Haien bizimodu eta ohituretara egiten ari zen. Auzoek, inguruko jendeak, begirunez agurtzen zuten, eta hura haien presentziara bezala haiek ere berera egin ziren. Afaritan, nor zen bata, zein bestea, zelan egin zuen honek aurpegiko orbaina, zerk herrenbeldu zuen hura, norenak ziren mutiko bihurri haiek... galdeztzen zion etxagunari, eta hango parte ere sentitzen hasi zen pixkanaka. Parte sentitzeak zoramenetik ihes egiteko aukera eman zion. Haiek ez ziren euren jaunak egindakoaren errudun, beraiekin harreman estua goa izatea lortuko balu, agian, lagundu egingo liokete.

- Hemengo lagunak ezagutu nahi nituzke, etxaldekoko beharrei ekin gura nieke beraiekin batera. Nor naizela esan diezu? -hutsala iruditzen bazitzaion ere, jaurti egin zion.

- Ez diet nor zaren erran. Enea zarela badakite, besterik ez.

- Ba, andere bat etxera ekartzen denean, aurkeztu egin behar da, errespetuz har dezaten.



Egotzitakoak inpentsan hartu zuen gizon gaztea, ez zuen holakorik espero, ez oraino bederen, berarekin lasaiago eta laketago zegoela nabari zuen arren; elkar ulertzearen hasiera liteke? Egunean-egunean gehiago maite zuen, ez zuen nahi beste ezagutzen, hala ere, edertasunarekin batera izaerak zeukan gati-bu: arranguran ere gozoa, gozotasunean indarra.

- Andere Maria, ene emaztea -aurkeztu zien-. Ez zaituztet lehenago bildu hemen, aitzinean zuen etxanderea izanen dena eri zegoelako, baina gaur berak hala eskatuta ari natzaizue.

Auzoak banan-banan hurreratu zitzaizkien agurra egitera: *laket handiz, urte anitzetarako, pozik hemen edukitzeaz*, haren irribarre zabalaren aurretik igaro ziren, eta egiazko irribarrea zela ikusi zuten. Euren artean luzaz mintzatu ondoren, bakoitza berera erretiratu zen. Joan aurretik, eztegu-ospakizuna egingo zutela agindu zien jaun Ontzaluk.

Emazte moduan aurkeztea asmo onaren seinale gisa irakurri zuen andere Urrikek, baina senarrarekin bezala oraingoan ere ez zioten aukerarik uzten; ala oraingoan bai? Noiz arte jarraituko zuen gizon hark bihotza bigundu eta birrindu nahian? Edozelan ere, nahiz eta aske utzi, ez zegoen atzerabiderik, amaren

umetokitik berratera zutela sentitzen zuen; ez zen berdin, jadanik ez zen berdin.

**Ate** hotsaz gorputzak jauzi egin zion, leiho egurrak ateari erantzun, eta gela ilundu egin zuen. Barruan gertatuko zena ikusi nahi zuen haizeak, eta leiho-egurra zabaldu zuen berriro. Haize epela zen, testigu aparta.

Gizona ezkontzarako jantzita zetorren: atorra zu-riak izpi eztanda egiten zion eskuetan eta saman, belus beltzeko jakaren azpitik. Ez eta bai, ikara eta nahiaren borrokak itxaroten zion emazte-jantzi zurian, lotarako jantzian. Ikarak irabazi zuen, eta kutxa gaine-ko soineko gorria janzten hasi zen anderea arrapala-dan. Beso indartsuak gerritik kateatu zuen, izterreta-ko gihar sendoek ipurmasailak ukitu zizkioten, eta buru bueltaraino baino heldu ez zitzaion ehun gorria erantzi zion esku boteretsuak. Gero, ile mataza albo-ratu zion, eta ezpaineak sama musukatu zioten. Gorpu-tzak baietz eskatzen zion andereari, adimenak ezetz erregutzen zion. Borrokatik askatu guran, haragizko katea hausten saiatu zen. Baina guda irabazia zuen

haragiak. *Ez dut gehiago itxarongo* esan zion, eta besoetan hartuta ohean etzan zuen.

Eskuek, laztanez, gerriraino igo zioten lotarako jantzia, begiak itxi zituen andereak. Belus beltza erantzi zuen gizonak, eta gerrikoa askatu zuen. Titiak laztandu zizkion ezpaineekin, liho zuriaren gainetik hasieran, tarratada batez zabaldu zion liho zuriaren azpitik gero, hasperen egin zuen andereak. Ezpaineek behe-rantz egin zuten maskorraren bila haragizko itsasoan. Sirena deika hasi zen. Olatuek indarra hartu zuten. Sirenak ozenago deitu zuen. Eta hauspoak erantzun zion burdinolatik. Itsaso guztia behar izan zen gau osoa iraun zuen sua amatatzeko.

Mattin Basok agindu zion bezala, gorputz hark erantzun egin zion. Edertasun ikaragarri hura bere besoetan zetzan lo biluzik. Esmatzean ere hain apal eta emari azalduko zen? Gorputza bai, baina borondatea agian ez.

## MAGIA

**Goiz** batean aurpegia garatxo gorri txikiz beteta esnatu nintzen. Hasieran zeozerk kalte egin zidala pentsatu nuen. Hiru egunera alergiaren bati errua botatzen hasi nintzen, eta sendagilearengana joan nintzen. Hark antibiotikoak agindu zizkidan. Bi aste geroago berdin nengoen, arduratzen hasi nintzen. Atopikoa omen zen, espezialistaren arabera, handik hiru astera. Beti makillatuta nenbilen, panpina itxurarekin. Konponezina omen zen.

Zein ergela! Nolatan ez nintzen arinago konturatu?

Kontzentratu egin nintzen eta begizkoa egin zidanarengan jarri nuen arreta. Ikusiko zuen txerri hark norekin zebilen teman.

Lasai itxaron nuen, hilabete, bi. Deitu egin zuen. Zer moduz zabilta, zelan doa dena, ondo al zaude -jakin-min handiegia bere estilorako-. Oso ondo, primeran, eta zu. Noiz geratuko gara, aspaldian ez dugu elkar ikusi. Nahi duzunean. Zer moduz datorren astean. Datorren astean ezin izango dut, hobe datorren hilean. Ze pena, ikusi nahi zaitut.

Bat-batean berak eman zidan pena. Eta instant batez ea erratuta nenbilen otu zitzaidan. Eta bera ez bazen?

Bera ez bazen, ez litzaioke ezer gertatuko, ondo kontrolatzen dut. Aurrera egitea erabaki nuen. Datorren astean ezingo dut, baina hurrengoan moldatuko naiz.

Heldu zen zita-bezpera, ilusioa ere egin zitzaidan ordurako, elkarrekin oso tarte onak pasatutakoak ginen eta. Eta hainbatean ez zen bera. Deitu egin zuen, ezingo zela azaldu, gaixorik zegoela. Eta zer duzu, ba. Herpes bat.

Nik banekien nire erremedioa eragina egiten ari zela, bazen astebete aurpegia garbitzen hasita nuela. Esperantza guztiz piztu zidan dei hark, nahiz eta banekien holako aferak sinetsi, ez sinetsi tankerakoak izaten direla.

Hurrengo astean medikuak egiaztatu zuen nire susmoa. A zelako gauza! Etorri den moduan joan da. Espero dezagun beste emakume horri ere horrela joan dakion. Beste emakume hori nire lagun hura zen.

Hildako baten aurka egitea zailagoa da, horretarako trebea izan behar da. Sinda ni baino trebeagoa omen. Senarraren ahotsa entzun orduko telebista

piztu zuen. Telebista berria erosi zuen propio pendri-  
vea sartzeko.

Senarraren ahotsa isildu egin zen. Baina hurrengo egunean berriz azaldu zen, eta Sindak telebista piztu zuen, eta senarra isildu, eta hurrengo egunean berriro itzuli zen, eta horrela jarraitu zuten.

Berba berri bat ehun aldiz ikusi edo entzun behar omen da betiko ikasteko. Ehungarren aldia da gaurkoa Sindaren senar hilarentzat. Sindak ahotsa entzun du, telebista piztu du, ahotsa isildu egin da. Ikasi duk isiltzen? galdetu dio. Eta betiko joan dadin, kandela zuria izeki du.

# Lotu gintuen gerrikoa

Hondarribiko hiribilduaren udaletxean 1611ko maiatzaren 10ean Ubillako Santxo eta Abadiako Gabriel, bertoko alkate jaun arruntak, Aranburuko Domingo eskribaua naizen honen aurrean

Aranoko Isabel, Aranoko Martin soldaduaren eta Etxegaraiko Mariaren alaba. Hamalau urte zituela erran zuen, eta hiru urte lehenago Hendaiatik zetorrela, hiribilduko ateak jadanik itxita zeudelako lonjan hartu zutela, eta lotarako etzanda zegoela Gaxengo Inesa hurbildu zitzaiola, eta galdetu ziola gaixorik zegoen izeba ikustera joan nahi zuen, eta baietz erantzun ziola, eta gero zerbaitekin igurtzi ondoren, sorbalda gainean jarri zuela, eta leiho batetik atez azkelarrera eraman zuela Frantzia aldera (...) eta bera apoak zaintzen jarri zutela; han batzen ziren sorgin anitz jaten ari ziren mahaien inguruan, gero dantzan hasi ziren denak, eta euren artean Gaxengo Inesa, deabruaren ondoan ari zena dantzan sorgin nagusi gisa, eta beste ba-

tzuk ere ikusi zituela. Beste sei aldiz eraman zuela akelarrera Inesak, eta bi aldiz Illarrako Mariak. Beti igurtzi egiten zutela ukenduez. Inesak behin meza erran zuela deabruak lagunduta, eta beste batzuetan dantzetarako danbolina jotzeko betebeharra zuela, eta Illarrako Mariak haurrak apoak zaintzen jartzeko betebeharra zuela, forma altxatzean «Akerra gora, akerra behera» kantatzen zutela (...)

Estakonako Jakoba, hamaika urtekoa, hiribildu honetako Estakona kapitainaren eta Isturizagako Maria Anaren alabak dio (...) deabruari laguntzen albo batean Inesa zegoela azkon bat zuela eskuan, eta beste alboan Etxegaraiko Maria zegoela, eta Garroko Maria oinetakoak josten zegoela, oinetakogile betebeharrean, eta Illarrako Maria ohetik eramaten zituzten haurrak jagoten ikusi zuela; dantza asko ere ikusi zuen (...)

(...) eta hiribildu honek eta bere biztanleek berriz izan zitezkeen kalteak kontuan izanik, eta fede saindu katolikoaren eta Jaungoikoari zerbitzatzearen aurkako ekintza hain gorrotagarriak erein ez zitezen, eta baita ere frantsesak zirela-



ko eta, beraz, ezin zirelako hiribilduan bizi Bere Maiestateak urtebete lehenago Errege Gutu-nean agindu zuen bezala, eta bidezko abegia-gatik, aipatutakook atzerriratu egin zituztela euren nazio eta izaerako beste batzuekin bate-ra, agindua hauts ez zezaten mehatxupean, eta hiribildutik atera eta tirola baten jarri zituztela, eta Hendaiarantz abiatu zirela (...)

(...) Aitatutakook [sorgin frantsesok] agindu hain larriari jaramonik egin gabe eta hiribildu honi kalte eginez eta justizia mesprextatuz, jakin zutela Garroko Maria itzuli egin zela eta bertan bizi zela ordu bi edo zela, eta algara han-dia sortu zuela bere etorrerak, eta hori ekidite-ko eta aurretik aipatutako arrazoiengatik hiribil-dutik bota zutela lehen aldian egin zuten eran, oraingoan Frantziatik ez itzultzeko hona ez beste inora aginduz, 200 zigorren eta epaitegie-tara eramateko mehatxupean.

(...) Egun berean alkateak eta eskribaua Lapa kalera Aranburuko Estebanen oinordekoen etxeetara joan ziren, Joan Lizardi, Diego de Luna y Mora kapitainaren soldadua bizi baitzen han, eta Garroko Mariaren senarra zenez, gal-

detu zioten ea non zuen emaztea, eta etxean zela erantzun zien, eta ekar zezala agindu zioten eta erakuts zezala, eta hala egin zuen, eta alkateek atxilotu egin zuten emaztea, eta hiribildutik atera, eta itsasadarrera eraman zuten, eta gabarra batean sartu Frantziarantz joan zedin. Eta alkateen aginduz eskribauak Garrori epaia irakurri zion, eta honek entzun, eta jakinaren ganean zegoela esan zuen. Eta gero senarra agertu zen, eta eskribauari eskatu zion berari ere irakur ziezaion, eta alkateek agindu zuten ez ziezaiola Lizardiri ezer irakurri 50.000 marabediko zigorraren mehatxupean, zeren eta aipatutako Garroren desterruaren kausa eta nolakoak bazekizkien, eta Jaungoikoaren zerbitzurako eta hiribilduaren onerako emakumea atzerrian izatea behar zuelako, eta erremedioaren bila jaun inkisidoreengana jo zezala.

(...) eta frantsesak izanik, ezin zirela hiribilduan bizi, Errege gure Jaunak agindu zuenari jarraiki; hiribildutik erbesteratuak izan ziren gehiago itzul ez zitezen desterrua hautsiz, eta hala eta guztiz, salatua, Jaungoikoaren maitasunari eta zuek kudeatzen duzuen erret justiziar

muzin eginez, itzuli egin da desterrua hautsiz, eta bertan egon eta bizitzeko asmoa duela; eta ezin zaio utzi, zeren eta bizimodu txarrean jarraituz gero eta deabruaren sektan, herrian zabalduko da hau Jainkoaren irainerako, eta zalaparta handia eta kaltea eragingo luke auzoengan, eta, gainera, sorginkeriararen eraman dituztenen guraso arrazoiz minduei aukera emango litzaike ez behar eta hilketak eragiteko, eta berriz eramango dituzten beldurragatik; eta eragozpen, kalte eta arrisku horiek guztiak ekiditeko, berriro erbesteratu, egotzi eta bota behar da, aurretik gogor eta zorrotz zigortuz lehengo arau-hausteagatik eta geroago egin duenarengatik desterrua hautsiz, eta legez kondenatuz egindakoengatik.

(...) orain dela hamabost bat egun sartu zela hiribildu honetan probintziako Korrejidore jaunaren aginduz, eta merio batekin etorri zela, «zeinak hiribildu honetan bizi ahal zedin babes-tu zuen» (...)

Garroko Maria, Garro ondoan Frantziako Mendiondon jaioa, 60 urtekoa gutxi gorabehera, hiribildu honetan jadanik 8 urtez gutxi gorabehera soldadu dagoen Juanes Lizardikoa senar duena, eta Donostiako hiribilduan bizi izan zena beste 30 urtez gutxi gorabehera.

**Eri** nago eta ez dut bizirik asko iraungo, zer gal neza-ke, beraz, egia erranik? Nire azken orduak senarraren ondoan iragatea besterik ez da nire borondatea. Zer delitu da hori?

Duela zortzi urte etorri ginen Hondarribira, Donostiatik. Laurehun dira erregimentuan. Frantzia eta Espainiako mugan kokatzen den erregimentuan, Frantziatik letorkeen edozein eraso jasotzen lehena izango litzatekeen erregimentuan. Hala ere, Felipe III.ak gaizki ordaintzen ditu berarengatik eta bere erreinuarengatik hain sendo borrokatzeko prest dauden gizonok.

Alokairuan bizi gara. Gure etxean ez da lapurrik sartzen, ez soldadua bizi delako bertan, ez daukagulako eramatea mereziko lukeen ezer baizik. Eta horrela izan da beti.

Zein fite doan denborabehin adin batera ezkeror, ez dakit pertsona nagusi guztiek nabari duten, nik bai, gero! Zeren, nahiz eta askotan ahora zer eraman ez izan, ez baitzait bizitza astunegia egiten, arin doakit senarraren ondoan, arinegi, hainbatean. Banekien ez nintzela luzaroan izango bere ondoan zuek egotzi ez baninduzue ere, ondo dakizuen bezala arras eri nago, eta 'sorginok' ez daukagu bizitza luzatzeko ahalmenik, ez horixe!

Felipe III.ak iaz mairuak bota zituen Aragoitik eta Kataluniatik, orain 'frantsesok' bota nahi gaitu, zer ironia! (denok euskaldun izanik frantses izatea egokitu zaigu guri, zuei gaztelau izatea egokitu zaizuen bitartean). Senarra espainiarra eta ni frantsesa? Noiztik? Euskaldunak besterik ez gara-eta!

Behin adin batera ezkeror, lehen ere erran dut, urtea oso arin doa, hegan bezala. Aise pasatzen da, eta norbaitek beste norbait azkenekoz urtebete lehenago ikusi badu, ez da hain urrun egiten une hura. Senarrarengandik urrun egin ditudan egun hauek, ordea, inoiz sentitu dudan atsekaberik larriena sortu didate. Luzeak izan dira, batez ere gauak, jasanezinak egin zaizkit.

Behin adin batera ezkerro denbora hain arin iragarteak badu bere beste aldean, gero eta hurbilago dagoela norberak hegan egin behar duen unean, hegan bertikotasunera. Denbora azkar joan, eta ezin ene senar maitearekin iragan? Itzultzeko baimena geneukan guztiok, zergatik ez diguzue utzi?

Ez nintzela biziko maite dudanarekin ez bada, egin nion zin ene buruari aspaldi. Maitasuna sua bezala zaindu behar dela diote, baina maitasunaren suak zaindu nau ni, bizitzan behin hartu nuen aukerari jarraitzeko sortu izan zaizkidan oztopoengandik babestu nau.

Egiazko aitormen hau hartzen duzuenarako, alkatok, zuen eskuetatik urrun egongo gara senarra eta biok. Beraz, zuen agindua beteko da, eta bakean utzi beharko gaituzue, baina argi utzi nahi dizuet, zuei eta Salazarko Alfontso Lizentziatuari, gutariko bat ere ez dela sorgina, sorginik ez dagoela, eta bai inbidiak eta gorrotoak, eta erresumen arteko borroka latzak, inoren lurraldeak eta aberastasunak izateko gutziarengatik sortzen direnak.

Berrogeita bederatzi urte nituen izurrite beltzak azken aldiz jo zuenean. Gurean ere jo zuen, eta Joan bere atzaparretan erori zen; luze, eta izuak hartuta

zaindu nuen. Artean horrelako eritasunik hain gertu ikusi gabea nintzen. Ez nekien, laugarren egunera arte bizirik iraun behar zuela bizirik ateratzeko, eta horregatik beste bi hilez zaindu nuen, nahiz eta lehen egunetako sukarrak aspaldi joanak ziren. Ez nion etxetik irteten utzi, ni hamabosgarren egunean kalean banintzen ere. Batek baino gehiagok usteko zuen etxean nuela hilotzik, hilotza zaintzen ari nintzela. Ez nion inori ezer erran, herrian geratzen ziren apurrek ni bizirik ikusten ninduten, eta kito.

Etixeraino heldu ahal izan zen oinez lehen handituak nabaritu zituenean. Norbaitek ikusi egin zuen, eta ordu batzuen buruan atea eta leihoak iltzatu zizkiguten handik jalgi ez gintezen. Ez ginen bakarrak, Donostian ia zazpiehun lagun hil ziren. Argi dago Donebastianek ez gintuela izurritetik babestu. Eta gero, goseak akabatu zituen beste asko.

Hogeita hemeretzi urte nituen Okendoko Migelen eskudran Joan Ingalaterrarantz eramán zutenean Isabel erreginaren kontra egitera. Porrot ikaragarria izan zen ekintzan parte hartu behar izan zuen. Eguraldiaren apetei aurre egin eta etxera itzultzea lortu zuen. Zer uste duzue egiten duela soldaduaren emaz-

teak horrelakoetan? Berriak txarrak direnean gaur eta bihar ere bai?

Hogeita zortzi urte nituen semea galdu genuenean. Sei urte bete gabe hil zen, eztul eta eztul.

Gure bizitza gogorra izan da, atsekabez betea. Gosea bizi izan dugu anitzetan, ez dugu ondasunik izan. Haurra gaizkitu zitzaigunean Mendiondora eramanean aitarenera, hura bizi baitzen oraindik, baina alferrik izan zen, haren sosek ezin izan zuten salbatu. Amiñi bat gehiago koskortzen zenean aitaxirengana bidaltzekotan ginen, harekin merezi zuen bizimodua izan zezan, guk eman ezin geniona. Aita aberats izanda, hori guztia ekiditeko aukera izanik, zergatik ezkondu nintzen soldadu batekin?

Hogei urte nituen Joanes Leizarragaren itzulpenak argitaratu zirenean, eta urte horretan erregina bere itzultzaileetarikoa harekin elkartu zen gure etxean. Aitak «Gaur andere handia ezagutu behar dun» besterik ez zidan erran, beraz, une batez 'handi' harekin ez ote zuen lodia erran nahi otu zitzaidan, Baionatik etorritako saltzaileraren bat, oihal pollitak ekarriko zituena, eta lurrin goxoak.

Eguerdia baino apur bat lehenago zerbitzariak aztoratzen hasi ziren: leihoetatik begira, orain; lorepoto-



etako arrosa eta azuzenei ustezko koadro baterako posatzen lagunduz, gero; ate aurrean jarrita erreberentziak egiten, ondoren. Zer gertatzen zen galdetzerara nindoanean, «Badator, badator» urduri eta ozena entzun zen. Zaldi-mutikoak egin zuen proklama zaldi gaintetik atari aitzinean. Orduan aita ikusi nuen aterantz zetorrela, eta ni han ikusirik «Hemen hago, maita, non sartu haiz, hator nirekin» erran zidan besoak luzaturik. Pozik zegoen, eta aiduru.

Laster entzun genuen zaldi eta gurpil hotsa. Gurdi ederra zen, ez dakit zenbat zaldunek laguntzen zioten, anitzek. Aitak ireki zuen atea, eta gurdiarena irekitzera joan zen prestu, inguratzen zutenei aurrea hartuta.

«Eguerdion erregina maitea» entzun nionean bihotzak jauzi handia egin zidan.

Ordurako Lapurdi, eta beraz Mendiondo, gure herria, Frantziaren menpe zeuden, baina aitarentzat Luis XII.a ez zen berezko errege, kargu hori Joana Albretekoarena zen legez, Nafarroako erreginaarena.

Enrikek, bere semeak, nik baino bi urte gutxiago zituen. Hura ezagutzeko parada ere izan nuen. Leizarraga eta erreginaren bilkura hartatik urtebetera ezkondu zen Enrike Parisen Margotekin.

Berarekin eraman nahi izan ninduen erreginak ez-teietara, bere gortekide gisa. Joan ere eraman zuen berarekin, eta gure etorkizuna iragarri izan balu bezala, elkar aurkeztu, eta elkartu egin gintuen.

Joan, gipuzkoarra sortzez, sendiz urruñarra duzue. Urruñako bere sendi hura gu bezain erreginazalea zen, eta haren esanetara zegoen, gu bezala. Espiak deituko gintuzkezue, eta hala izan ginen urte askotan, baina ez Frantziaren espiak Nafarroaren aldekoak baik. Ene aitak ozenago esan zezakeen, baina ez argiago: «Espainolek konkistatu zizkiguten lurraldeak, eta frantsesek ere bai, eta orain Nafarroa txiki hau baino ez dugu». Hala esan zidan Garaziko Donibanen, gazteluko harresitik besoak zabalduz oraindik gurea zena erakusteko. Eta hitz haiek hunkitu egin ninduten, eta erreginaren zerbitzuan sartu nintzen, zerbitzu sekretuan.

Lehenik eta behin, Leizarragaren *Testamentu berria* irakurri nuen, euskaraz. Zein ederra gure hizkuntzan Jainkoaren bideari jarraiki ahal izatea, Calvino zerraion eran egin ahal izatea!

Izkiriatzen badakidala ohartzea zuentzat ezustekoa izango da, ziur naiz, nire tankerako atso batek ezingo zuela pentsatuko zenuten. Ume-umetan ikasi

nuen, latinarekin batera. Aitak argi zeukan alaba bakkarra ez zuela ezjakintasunera kondenatuko. Era berean, hurbildu zitzaizkidan gizonezkoen artean bati ere ez zion oniritzi. Libro nahi ninduen. Horregatik hil zorian zegoela, bedeinkazioa eman zidan Joanekin ezkontzeko: «Nafarzalea da, eta erregina gaixoaren zerbitzukoa, eta zuk zinez maite duzu, ene alaba, enetzat aski da». Lasai asko hil zen alde horretatik bederen; ez, ordea, Euskal Herriari dagokionez, erreginarik gabe ez baitzuen ikusten haren semea nafar erresuma irmo defendatzeko gai.

Medicitarrekin ez zegoen ezer onik, Bartolome deunaren gaueko sarraskia Parisen bertan bizi izatea gertatu zitzaigun. Higanotekin joan ginen ospakizunetara, baina ez genuen kaleetako harlauzetan ostaturik hartu haietariko anitzek bezala; guri lekua egin ziguten etxe umil batean. Harremanak genituen, bai Parisen bai Madrilen. Horregatik aske atera ginen odolustetik. Oso larria zen Enrikeren egoera, hango hainbeste solairutako etxeetako hagen antzo jasaten zuen jantzita zeraman koroa txikiaren pisu erraldoia. Bere borroka-lagun eta adiskideak horrela, horren ankerki, erailda ikusteak ia eromeneraino eramaten zuen. Eta amaren erailketak.

Erregina ezteiak baino bederatziz egun lehenago erail zuten. Eskularruak erostera joan zenean pozoitu zuten, medicitarren autopsiak era naturalean hil zela aldarrikatu bazuen ere. Alabaina, eztei-eguna atzeratu, eta Enrike eta Margot ezkondu egin ziren.

Giro lazgarri hartan sortu zen gure amodioa. Errazago zatekeen beste egoera batean Parisen maitemintzea, hango ibai eta zubi ederren artean, jauregi eta lorategi oparoen artean, baina Parisek izan zuen gatazka eta sarraski artean ere maitasuna sortzeko ahalmena. Gaztetasuna zen nagusi jai odoltsu haietan, gu ere gazteak ginen, kausa beraren jarraitzaile ginen, misio berezi baten jabe. Gure artean berehala jaio zen elkarri laguntzeko gogoia, ez zen pasioak sortutako maitasuna izan, gure herriagatik hartuko genituen nekeek lotu gintuzten. Neke bakoitzak estutu egin du lotu gintuen gerrikoa; banatuz gero, sortan dauden loreen lokarria askatzean bezala, erori egingen ginateke.

Higanoten artean joan ginen, baina gu higanotak baino hurbilagokoak izan ginen Enrikerentzat, amak hil zorian harentzat erran zizkigun hitzak adieraztera joan gintzaizkion, eta ordutik aitzinera bere aginduetara jartzera.

Enrikek amak agindu zion bezala, eutsi egin zion egoerari, eta irabazle atera zen. Eta baxenabartarrak ere bai, baina beste euskaldunok berdin jarraitzen dugu, hark ez baitu egin ezer gure lurraldeak bereganatzeko.

Ez naiz luzatuko haren eta gure arteko jazoerekin. Hilik dago jadanik hura ere, erailik ama bezala, eta haren emazte medicitarraren eskuetan geratu da gure Nafarroa txikia, agi denez ez luzerako aske antzean. Zenbat denbora beharko du Frantziarekin bat egiteko?

Enrikek Lancrai ankerra bidali zuen, bere aldekoak izan ginenok akabatzen. Zeren beldur zen? Agerian utziko genuen beldur? Bere berezko herriaz lotsatu zen agian? Eta saritu egin zuen inkisidore malapartatua. Etxe onekoa naiz, nire senarra ez bezala, baina argi daukat nobleek ez dutela guk bezainbeste egin gure herriaren alde.

Amets egin genuen euskaldunok geure erresumari eutsiko geniola, baina sentitzen dut ametsa beteko ez dela. Amets egin genuen protestanteak izango girela, baina hori ere ez da bete. Soilik amets bat bete dut: maite dudanak ni maite izatea, lehen egunean bezainbat.

**ADARRA JO,  
EDO ZELAN HIL ZEN  
SINDAREN SENARRA**

**Itxura** aldatu behar dizut Sinda, hainbeste gustatzen zaizkizun soineko edo praka horiek erantzi behar dizkizut. Larruzko trajea jantzi behar dizut, buruan kaskoa jarri behar dizut, eta lotu. Eskularruak ere ipiniko dizkizut, bota sendoak ere bai, takoiekin edo lauak, zeuri utziko dizut aukeratzen.

Zatoz, begira zelako motorra! Lasai-lasai eramateko horietakoa da, tinko eserita joango zara, oso eroso, gainera ez du zarata jasangaitzik egiten. Bada, zeren zain zaude? Salto! Eseri gainean!

Piztu dizut, bazoaz leun-leun. Haize leuna nabaritzen duzu saman. Errepidean ezker aldean dauden etxeak ospa egiten hasi dira, atzerantz, laster bat bera ere ez da geratuko. Begira ezazu eskuinaldera, itsasoa zabala da, urez egindako basamortua, hareaz egindako hondartzaren ondoan. Badoaz horiek ere, harea eta ura, baina ez duzu nabaritzen, infinituak dirako. Zein ederra! Zoragarria! Errepidea porlanezko basamortua da, eta zu gameludun galdua. Eguzkia

duzu aurrez aurre, jadanik nekatua, minik egiteko indarrik gabe, ezin zaitu itsutu. Profitatu itzazu jaurti dizkizun gaurko azken izpiak.

Eta nora zoaz? Nora joan nahiko zenuke zuk? Akaso adiskideekin trago batzuk jotzera munduko tabernarik onenetan? Akaso dirutza handi bat kobratzera? Akaso, zergatik ez, inoiz ikusi duzun filmik ederrenaz edo erakusketarik ederrenaz goatzera?

Iluntzen ari da, zeruko gorriak pintatu dituenaz ez da margolari txarra, mendi aldean dakuskizun biharko txakolinaren okreak ere bereak ote dira? Paisaia sakralizatuta dago, eta egilea gurtu nahian guritu egin zaizu bihotza. Musika jarriko dizut, unea betiko gordezten lagunduko dizun melodia.

Zeruan zaude, baina zerbaitek traba egiten dizula ohartu zara. Izterrean pisu bat duzu, poltsikoan ondo kokatuta daramazu. Hotza eta gogorra da. Burdinazkoa. Beste izterrean daukazu falta zaiona, kargado-rea.

Oso erraza da, barruan sartu behar diozu. Praktika txiki bat egingo dugu bazter batean. Esku biek hartuko duzu, eta katuari sakatu. Zaratak izututa edo, besoek atzerantz egingo dizute. Ez da zaratagatik izango, fisika-legeek aginduko dute. Beldurtu egingo zara.

Goazen, gurpil biko ibilgailua zain daukazu helmugara eramateko. Beldurra bide bazterrean utzi behar-ko duzu. Motxila txiki batean mendeku gosea sartuko dizut bakarrik senti ez zaitez.

Heldu gara, zorabiatuta zaude, ez duzu egin nahi, honezkero igarri duzu zertara zoazen. Atea jo duzu, txakurraren oin-hotsak entzun dituzu, umeenak dira harrabotsak?

Atea ireki da, aurrez aurre daukazu. Arma aurpegi aurrean jarri diozu.

Zure beste armak kaskoa eta betaurrekoak diren arren, ezagutu egin zaitu.

- Zer egiten duzu zuk hemen? Ez zenuen pendri-vean egon behar? -diotsu editoreak harridura aurpegiarekin.

- Barkatu -bat-batean iratzarritakoaren keinu ino-  
zoa egin diozu-, erratu egin naiz, senarra hiltzera joan behar nuen.

- Ba, zoaz agindua betetzera -erantzun dizu-, eta esaiozu idazleari adarrik ez jotzeko ez zuri ez niri.

Adarra jotzen du idazleak? Egoerarik onenean ere eszenatokitik at geratzeko aukera ematen digu-eta! Ikusle hutsak izan gaitzke-eta! Ez al gara, ordea, protagonistaren azalarekin janzen gehienetan? Eta



beste pertsonaia askoren azalarekin ere askotan? Horrela, bidaia ezezagun baterako izena ematen dugu. Inongo arriskurik ez duen bidaia baterako izena, edozein mementotan amai dezakeguna, irribarre batzuek edota negar anpulu batzuek ordainduko duguna. Pagotxa hutsa!

# Nola zuen izena?

## Zirriborroa

Partisano dago maitea, hemendik ospa eginda 37an, gudaria batailo batean. Maistra dago Bizkaian bera. Gipuzkoako herri bateko andrea, guraso erreketek-falangistak.

Kontatu aitak egindakoak (andre bati akain-belarra edatera eman, ilea moztu, bortxatu askoren artean?). Amak beste andrazko batzuei egindakoak, eta euren seme-alabei, errenteroei etab. Zelan ezagutu zuen mutila, zer agindu zioten elkarri. Ezkongabe dago bere zain, horregatik esamesak: ez ote zen moja sartu behar, ezkongairik onartu ez. Maitasun klandestino, inortxok ere ez daki, oso gogorra da hori berarentzat, gurako luke norbaiti kontatu, besterik ez bada emakume galtzaileetariko bati; baina ezin du konektatu, ihes egiten diote. 12 urte luze igaro dira, ez du etsi, zalantzak: hilik ote da, zelan jakin? Gutunak bidali elkarri, zelan?

Izen faltsua jarrita gutunean eta oporretako lekura bidalita, han ez dela eurentzat, orduan postetxera joan eta esan ezagutzen duela andretxoa eta berari emateko

Zelan lagundu zion arrebari honek jakin barik. Mutilaren antza hartzen deutso, haren trazak ditu, gogoratzen laguntzen deutso. Urte asko geroago arrebaren bidez lortu harremantant jartzea? Eta ospa egin Frantziara? Eta han ezkontuta aurkitu eta etxera bueltatu? Nik ez nukeen hori egundo egingo esan zion gizondu-tako mutilari. Baina zu emakumea zara erantzun zion, eta etxera bidean trenean, negarrez datorrela, akordatu da neskatila hartaz, bizkaitarra, hain ikasle fina, ona, aratza, ez zuena ikastera bidali beka batez, eta beste mutiko erdipurdiko hura joan zen bere ordeaz, eta handik urtebetera etxera bueltan, eta neskatilaren aurpegierak gogoratzen ditu: joan zenekoa eta itzuli zenekoa, batean inbidia eta etsipena, eta bestean mespretxua, ia gorrotoa. Mutiko ergel halakoa! Zelan zuen izena neskatilak?

**Gabiriakoa** zela esan zion mutilak. Ordiziako plazan ikusia zuela behin baino gehiagotan.

- Zu Zegamakoa zea, ezta?

Beldurak gezurra erantzutera behartu zuen neska. Mutila erratuta bazebilen, ez zekien neskaren familiaren berri. Baiezkoarekin ez zion haren oroime-nari inolako aukerarik emango.

Berak ere gogoratzen zuen, azokaren ondorengo erromerian hain zuzen, gizonezko ederregia zen ez ohartzeko. Haren hankak, dantzak eskatzen zuen bezala, arin-arin mugitzen ziren praka eta espartin zurien barruan, soina zuzen, eta besoak aske baina irmo gurutzea eginez, txapel eta gerrikoaren gorriak gorputz haren indarrari suarena eransten zion. Eguzkia iruditu zitzaion, bihotzeko leiho iluna argitzen ziola. Eta orain, ezustean, han aurrean zeukan, intendentziako kamioiaren leihatila ostean, igotzeko eskatzen.

Hasierako beldurra baretu egin zitzaiola nabaritu zuen. Ez zeukan argi ausardiak ala bihotzak igo zuen kamioi hartara. Etxean, gorriek emakumeak bortxatzen zituztela esaten zioten: *mojak ere bai, atera kontuk! Ze jendillaje dien! Baña laister botako ditugu danak ingurutik*. Esaldi horrekin bukatzen zituen aitak beti letaniak bihurtutako «aholkuak» deitzen zituenak,

aginduak ziren arren, alabak ondotxo zekien bezala: *ezin dezu... ezin zea... kontuz zer egiten dezun...* Aitarren karranketara ohitzen ari zela pentsatu zuen. Horregatik, beharbada, igo zen kamioi hartara, zerbaitek ohiturara guztiz erortzen utz ez ziezaion. Edota ondolan zeukan gorputzak erakarrita. Mutila zigarroa pizten ari zen. Luxua zela agerian utziz egin zuen, astia hartuz; gero zigarro paketea gudari praka marroi argietako poltsikoan sartu zuen berari eskaini gabe, eta azeleragailuari sakatu zion.

- Ez diazu eskeñi- ausartu zen.

Mutilak irribarre egin zuen, eta goitik behera begiratu zion disimuluz.

- Ez dezu erretzalle itxuraik.

*Eta zuk zer dakizu* erantzuteko gogoari eutsi egin behar izan zion. Errepublikar itxurak egiten besterik ez zebilen, aita erreketen nazkagarria zuela ezkutatzeko. Ez zen nazkagarria erreketea zelako, gizonkeria hutsean bizi zelako baizik, baina jadanik adjektibo biak sinonimo sentitzen zituen. Ama esklabo zeukan aitak bere kapritxo guztietara, haserre egiten zion edozerengatik, eta askotan jo ere bai; horrelakoetan ama negar zotinka joaten zen gelatik. Zaplaztekoak izaten ziren, hurrei ematen zaizkienak bezalakoak;

horregatik alabari iraingarriagoak egiten zitzaizkion: aitarentzat ama ez zen ezer, ez zen ume zorri bat baino gehiago.

Ez zuen erretzaile itxurarik, ez. Aitaren hatzetan ikusten zituen zigarro puruen keak haren aurpegi zorrotza ezkutatzen zuen, ezpain artetik botatzen zue-nean. Orduan, betiko ezkuta zezala desiratzen zuen. Kokoteraino zegoen kearekin, zigarroekin eta aitare-kin.

Neska jatorra zen, eta ez zuen nori erakutsi jatorra zela, amonari izan ezik. Osaba ezkongabea bizkaitar zebilen, horrela idatzi zion amona Dariak: *bizkaitar zebillen, hator lagun egitera, ez den egunero etxeratzten, eta gerra ez den emakume zahar batentzat lagun ona, hator nirekin*. Aitaren haserrea ikaragarria izan zen, erreketek zebilenetik areagotuta zituen sentimenduak, batez ere txarrak. *Zure anai zerri hori harrapatzen badegu, ez pentsau nik salbauko dedanik esan zion amari; zu, jun zaiz zure gelara oihu egin zion alabari; eta alde egin zuen amona «bizkaitar» hori ez al da akauko bere seme gorrikin batea!* marmar eginenez, emakume harena bailitzan erru guztia. Hurrengo egunean soilik zaplaztekoak izan ez zirela erakusten zuen amak, begi gorrituekin begiratu zion eta *jun hai*

*aitte etorri baño lehen agindu zion, maletea ein diñat erantsi zuen, eta zorro batean dirua sartu zion, alabak asko iritzi ziona. Otutakoa igarri balio bezala amonantzat azaldu zion amak, eta aitten txoferrak eamango hau esanez alde egin zuen negarrez.*

Urriaren erdia zen eta ordurako ia Gipuzkoa osoa nazionalen eskuetan zegoen; horregatik, Bergararaino lasai asko joan ziren. Han txoferrak buelta egin behar zuela esan zion, eta helbide bat errepikatu zion hiru aldiz, *esaiezu nere partetik zoazela, lasai eon, oso jatorrak die*. Gutun bat ere eman zion haientzat, jakin zezaten hura zeramana nor zen, eta nola lagundu behar zioten. «Oso jatorrak» horrek aitaren alderdikoak zirela, Comunion Tradicionalistakoak, esan nahi zuela zalantzarik gabe, pentsatu zuen neskak.

Elgetaraino gurdi batean igo zuten. Kontuz ibiltzeko esan zioten *hemendik aurrera gorrixen esparruan zauz, ez berbaik eiñ iñokin, ta itxoin billa etorri arte*. Herriaren irteeran utzi zuten, Elorriora bidean; beste gurdi baten zain.

Gurdia barik kamioia agertu zen. Mutilak neska ezaguna ikusi orduko gelditu egin zuen traste zaharra, eta atzerantz egin zuen bere pareraino.

- Egunon, ez al tzea oinez jeitsiko maletazar horrekin, lau errubera dauzkenen!

Onean zetorrela argi zegoen arren, pauso bat atzera egin zuen. Aitaren erretolikek zuten indarrak ohartu zen berehala, eta hari kontra egiteagatik pausoa ematen saiatu zen. Borroka suertatu zitzaion mutila ezagutu zuen arte.

Urriaren 7an sartu ziren nazionalak Bergaran, baina aurrera egitea ez zeukaten hain erraz, Intxorta inguruetan antolatuta zegoen defentsa EAJren batailoiekin: Sabino Arana, Euzko Gudarostea, Padura eta Arratia; Kanpazargainan Hermanos Proletariosak zeuden; CNTk Isaac Puente batailoia eta Malatesta zituen Udalaitzen, eta eurekin batera Izquierda Republicana-ren Zabalbide konpainia zegoen. Horrela azaldu zion mutilak lau gorpil izan, bazituen kamioian, baina gorpilok itxura onik ez zuten, eta beste atal guztiak mugimendu zakar eta zarata baino ez ziren.

Kamioiaren zarata eta mugimenduen artean mutil haren irribarreak eta ahotsak laztandu egiten zutela konturatu zen, eta kamioia kuma bihurtu zitzaion, ama alboan zuela, bere irribarre zabalarekin hitz ez-ziak esaten. Ama gaixoa! Bakarrik utzi zuen senar haren ondoan! Negargurari eutsi behar izan zion.



Mutil hark sentimendu ezkuturen bat mugiarazi zion. Tramankulu hartatik jaistean abandonatuta sentituko zela jakin zuen neskak.

- Berriz ikusiko al ga? -apal-apal eta aurpegiko irribarrea areagotuz egindako itauna izan zen.

Elorrioko kuartelean gudariak eta milizianoek behar zituztenak hartu, eta beste itzuli batzuk egin behar zituen Intxorta eta Udalaitz aldera, baina lehenik Durangoraino eramango zuela agindu zion.

Baietz erantzun zion, erakutsiko ziola non biziko zen, eta joateko nahi zuenean.

Itaun xume hark bihotza poztu zion, baina ezin izan zion negarrari eutsi gurgilak traka-traka aldendu zirenean.

**Maitemindu** egin zen, eta kamioiren bat ondotik pasatzen zenean bihotzak abiada hartzen zion; eta nahi zuena ikusten ez bazuen, galgari sakatzen zion, eta lasaitu egiten zuen, baina penaz.

Hasieran egunero ateratzen ziren kalera. Goizero mezarara, Andra Mariko elizara edo aita jesuiten elizara; arratsaldero amonaren koinata Benitarenera, bakarrik bizi zelako senarra hil zitzaionetik, seme-alaba-

rik izan ez baitzuten. Han josten egiten zuten, eta kontu-kontari ibiltzen, gehienetan gerra kontuak ziren. Gero ilundu aurretik etxera abiatzen ziren, baina itzuli luzea egiten zuten, gerra nola zihoan euren begiekin ikusi guran, batez ere batailoiak herrian kokatu zirenetik: aita jesuitenean Kirikiño batailoia, Santa Susanako mojenean zulatzaile minatzailen batailoia, San Frantziskoko mojenean batailoi sozialista bat, Mendizabal txaletean artilleria batailoia. Baina neskak merkatu plazara joan nahi izaten zuen, han automobilen parkea jarrita zegoen eta. Mutila txoferra izanik, kotxe haietan ibiliko zen. Handik pasatzean umeak ikusten zituzten, eta berak ere, ume haiek egiten zuten moduan, irudikatzen zuen halako kotxe batean zihoala, baina mutilarekin, haren besoak oratuta lepotik, zorionak eragindako irribarrea ahoan, gerlarik gabeko errepide batean zehar. Intendentzia Andra Mariko elizan jarri zuten; baina ez zuen bere gudamutila han egundo ikusi.

**Etxean** agertu zitzaien. Negua zen, eta jaka lodia zeraman, buruan txapela, eskuetan larruak.

- Egunon -agurtu zuen-, ezin izan det leheno etorri.

Holaxe: simple, simple. Eta neskaren harridura aurpegiari irribarrearekin aurre egin zion.

- Hotz egiten du -erantsi zuen, atean zegoenak sartzen uzteko aitzakia gisa.

Neskak nabaritu egin zuen hotz hura, zeren eskuekin soinekoaren eskotea itxi zuen, eta ezer esateko gai ez zela atzera egin zuen pasatzen uzteko.

- Martzelo kapitañen partetik, Urte Berri egunen azalduko dala.

Amonak hori entzun zuenean *etorri hai, gazte, etorri hai sun ondora* ziotsola txapa ondoan eserarazi zuen eta kafea prestatzen hasi zen. *Gosaldu al dek? Gauzak hola, ez diau laister jatekoik izango, irabazi beharren gerik. Zer tziok nere seme horrek?*

Neskak ez zituen mutilaren hitzak aditu, entzun bai, baina aditu ez, ez ziruditelako hitzak bere belarrietan, laztanak ziruditen; haren altzora salto egiteko gogoari ez eusteko beldur izan zen. Eta hura ondoan izan gabe asko sufrituko zuela ere jakin zuen. Iman handi bat zen gorputz hura, iman erraldoia.

Gosaldutakoan atera lagundu zion.

- Hemendik aurrea hemen eukiko nauzu, libre naon guztitan etorriko naiz billa.

Horrela hasi ziren geratzen, ia egunero hasieran. Gutxira, eurekin bizitzen jarri zen, edo lo egiten, hobeto esateko, gauez zein egunez, gerrak agintzen baitzuen noiz.

*Kontuz ibili hai esan zion amonak mutilak alde egin zuen baten. Eztiñau, geo, jaio berrik behar! Baño gozatu zan ahal denan guztie, etzekiñau luzarorako izango gean mundu hontan gerra zikiñ honekin.* Amona Daria liberala zen, baina ez beste egoera batean ilobari bizimodu libre hura bizitzen uzteko beste. Gerrak dena aldatzen du.

*Mezata jun behar diñat, lagunduko al dien?* iratzarri zuen amonak goiz hartan. *Aspaldin ez gaitun jun. Jainkokin bakek ein beharko zitunau.* Ilobaren higuin keinuari *Molazale horik ere bere semealabak zeuzkena, lasai, etzienau beitu ere ingo erantzun zion. Baño apaiz ziztriñ hori zerun ere ikusiko deula pentsauta odola berotzen zitan, ze apaizek zerura zijozten, ezta?* Txantxa egin nahi izan zuen amonak, hartan, behintzat, Jainkoa zuhur ibiliko zela adierazteko.

Aste Santuan Andra Marin mezak ematen hasi ziren berriz, bertan zegoen guztia San Agustingo komentura eraman ostean.

- Ez, amona, gerra irabazten deunen jungo naiz -txantxari txantxaz erantzun nahi izan zion.

Gau hura mutilak kanpoan igaro behar izan zuen, eta itxaron egingo zion.

- **Ondo** zaiz -begiez ikusi zuena, hitzez adierazi nahi izan zion neskari, hitzez eta besarkada estuz-. Ez dakit nola, baño kale hontan erori ez dan etxe bakarra haxe izango da. Eta amona?

- Mezatan.

Mutilaren aurpegia guztiz aldatu zen ziplo, zurbildu egin zitzaiola antzeman zion neskak, gudari-jantzi zarpailak hautsagatik zuen kolorea hartu zuela. Honen galdera keinuari erantzun egin beharko zion hark ezinbestez. Berba egiteko indarra hartzeko edo, hasperen egin zuen eta zuzen begiratu zion.

-Jantzi zaiz, ta ez zazu irten iñoa, kalean ez dau ezer ikusteko modukoik. Itxoizu ni etorri arte.

- Baño zer gertau da? Noa zoaz? Ze hegazkiñ izan die?

Azken galdera eskaileretan beherako oinen jauzi-hots azkarrekin nahastu zen. Beste galdera asko egin barik geratu ziren astirik ez zelako egon. Neskak leihotik begiratu zuen berak ere ez zekien zenbatgarren biderrez. Etxe guztiak jota zeuden, kalea zena etxeek ez tandan egotzi zituzten harri, adreilu, egur eta beiraz beteta zegoen, baina hautsa zen nagusi. Enbor baten azpitik txakur batena zirudien buztana ageri zen. Zeren erru zen animalia hura? Aurreko etxeko pareko solairuak kalerako horma janda zeukan eta sukalde desitxuratua ikus zitekeen: mahaia eta bi aulki han zeuden, suterik ez, harraskarik ez. Begiek beherantz egin zioten, zintarrirantz, haiek bilatzeko esperantzarekin, ez ziren ageri. Gorantz begiratu zuen berriro, han behar zutelakoan, baina ez zeuden. Begiak, duten enfokatzeko ohiturak eraginda, korridorean barrena joan zitzaizkion oso erraz, atea txangak apurtuta, lurrean zetzalako. Ikarak gorputza leihotik aldenarazi zuen: korridorean hanka biluzi batzuk ikus zitezkeen etzanda, kamisoia ematen zuen oihal zati batean hasten zirenak; hortik haratagoa estalita zegoen haga batzuek eta horma eroriaren zatiek. Txilioka hasi zen.

Berrogeita hamar kiloko lau lehergailu erori ziren Andra Mariko elizan bederatziak laurden gutxiagotan,

apaiza ostia sagaratzen ari zen une berean. Elizatik oso gertu bizi ziren, eta oso ondo entzun ziren hango eztandak. Edo hala iruditu zitzaion neskari, beste ez-tandak baino ozenagoak izan zirela haiek, bihotzak besteetan baino eztanda bereziki bortitzagoa egin ziola. *Amona! Amona!*

Kalean aupadak eta deiak entzuten hasi ziren. Haiei orroek erantzuten zieten. Bigarren solairuko bizilagunaren deia ere entzun zuen, amonari eta berari egindakoa.

Etxean bezala tresnak, liburuak, lurrian zehar zeutzan han goian; arasa okertuta, mahaiak eusten zuen. Logelan zegoen emakumea aieneka, izua zen, ez zegoen zauriturik. Besarkatu eta altxatzen lagundu zion.

- Zure amama giputxe ondo dau? Daria ondo dau?

- Eztakit. Mezata jun da ta oraindio ezta etorri.

Hamaikak baino pixkatxo bat lehenago itzuli zen mutila, aurpegia itxuragabetuta zekarren.

- Eztet billau...

Gezur hark ez zuen egia ezkutatu.

- Bizirik -erantsi behar izan zuen.

Hitz hura beste lehergailu bat izan zen, oraingoan hutsik egin ez zuena. Hegazkinen txistuak entzuten

hasiak ziren, eta haietako batetik erori zitzaiola iruditu zitzaion. Mutilak lurrera bota, eta babestu guran bere azpian hartuta, estu besarkatu zuen, baina bihotz minuaren ezta detatik ezin izan zuen alden-du.

Ez zen bonbardaketa izan. Egindako sarraskia ikuskatzera etorri ziren konboi italiarrak. Arratsaldeko seiak laurden gutxiagotan, ostera, goizean baino bortitzago aritu ziren. Geltokian bota zituzten lehergai-luak sua eragitekoak ziren. Ospitalean ere jaurti zituzten. Zeharkalean egotzi zituztenean, neska-mutilek, beste durangar askoren antzera, bertan jasan zituzten. Hilerrirako bidean harrapatu zituzten, hara eramandakoak senideak ziren jakitera zihoazenean; baina bikoteak bigarrenez muzin egin zion heriotzari, beste herritar askok ez bezala. Ankerrena uriaren kanpoaldeko zelaietara ihesi zoroan zihoazenen patua izan zen, harrapakin errazak bihurtu baitziren goseak akabatutako ehiza-hegazkin gupidagabeentzat.

Kanposantura heldu zirenerako goiz hartako argi garbia guztiz amatatuta zegoen. Gauekok ezin izango zituen han ilaran jarrita zeutzan ehun bat lagunak eraman. Joanak ziren jadanik, inork ere ez dakien nora-



bait. Geratu zirenek ere joanak ziruditen, eromenak eroandakoak. Isiltasunak agintzen zuen urian.

Ez zen txintik ere atera bere ahotik amona ikusi zuenean, akaso hasperen ahulen bat, zeharo indargabea. Negarrik ere ezin izan zuen egin. Amaren negarra irudikatu zuen, bere eginezina barka ziezaioten hangoek. Aita ere irudikatu zuen, baina hegazkinetik amonari tiro egiten, hari ez ziolako inoiz barkatuko.

**Osaba** Martzelok biak eraman zituen berarekin Bilbora. Mundu honetan bi gizon haiek ez beste inor gertatzen zitzaizkiola erabaki zuen neskak.

Ez ziren hiru hilabete ere izan han egin zituztenak, baina neskarentzat ordura arteko egunik bizienak izan ziren, egun bakoitza azkena balitz bezala bizi zuen. Jaurlaritzaren egoitza bihurtu zen Carlton hotelaren inguruetan ibiltzen ziren. Ezkonberri bizimodua egiten zuten ostatu batean, eta eztegu bidaian zeudela imajinatzen zuen, eurengandik at gertatzen ari zen guztia film gogor bat baino ez bailitzan. Eta zoriontsua izatea lortu zuen. Inoiz baino zoriontsuagoa.

Ekainaren 19an nazionalengandik ihesean Kanta-briarantz abiatu ziren gudariekin batera alde egin zuten.

- Ni enaiz errendituko, ta ez det urde horikin negozi-  
ziauko!

Hitzok osabari bota zizkion mutilak hara helduta-  
koan. *Eta ni zer? Nik ze ein behar det ba zure ustez?*  
itaundu zion neskak begiradarekin: *gu* esan beharrean  
*ni* esan zuen bere gizonak.

«Trinkertxu» jarri zioten ordura arte «Jaungoikoa  
lagun» deitzen zen itsasontziari. Santoñatik irteteko  
astirik ez zioten eman. Faxistek barruan zeudenen ar-  
tean aurkitu zuten neska. Igotzeari uko egin izan  
balio... Nor zen jakin zutenean gurasoengana bidali  
zuten, aitak salaketa egina baitzuen. Mutilak Iparral-  
dera alde egitea lortu zuen osabarekin, eta Agirre le-  
hendakariarekin. Neska arinago bidali nahi izan  
zuten...

**Kamioi** batean hasi zen amodio istorioa, eta tren ba-  
tean amaitu behar zuen. Hamabi urte luzez iraunarazi  
zion bizirik maitasunaren garrari itxaropen faltsuak.  
Eta eguneroko ameskeriek egin zioten putz. Trenak

maitearenganaino eraman zuen azkenean neska, baina zain izango zuen geltokian, bera ez bezala gertatuko zenaren jakitun. Koitadua!

Bordeleko kaleek alaiak ziruditen gerraostean. Gerra irabazita, Euskal Herriko kaleek ere, alaiak eman beharko zuketena, baina hitsak ziren. Irabazle bizi bazen ere, galtzailea zen neska, baina hori nork zekien?

Santanderretik etxera bueltatzea erreformatario batean sartzea izan zen. Ateak itxita zeuden beti berarentzat. Aitaren lotsa ziren ama-alabek ez zuten beharrezkoa baino hitz egiten. Ama anker bihurtzen ari zen, auzokoekin, zerbitzariekin, anker eta harro, batez ere gerra finitu zenean, emazte gisa aitaren mailan zegoela adierazi nahian edo. Aitak herrian egin ziren maltzurkeria guztietan parte hartu zuen, eta alabak geroago jakin zuenaren arabera, taldeko gaiztoenetarikoa izaten zen. Herriko erreketek eta falangistek osatzen zuten talde horrek izututa zeukan herri galtzailea.

Herrian gosea zen nagusi, baina eurenean ez zen ezer falta. «Gorrikumeek» ez zuten zer ahora eraman, eta apaizak, doktrina orduetan, zeruan pastelak zuzeldela esaten zien; infernua, ordea, deabrua sardeare-

kin, haur gaiztoak sutara botatzen. Ume haien aurpegiak hiltzeko gogoak erakusten zuten, pastelak jatera joateko. Baina hiltzen ari zirenak gurasoak ziren, hormetan, kartzeletan. Gerran bizirik atera ziren mutil eta gizon gazteak soldadutza amaigabeak egitera behartu zituzten. Andrazkoek baserrietan umeak eta zaharrak aurrera atera behar, herriko edo etxeko nagusiek urte osoan lortutako uzta errekiatzuten zieten bitartean.

Luzaroan aritu ziren horretaz guztiaz, baita partisano bizitzaz ere, mutila partisano ibili baitzen.

Bordeleko Antzoki Nagusiaren aurrean geratu ziren. Hark ezagutuko ez zuen beldur izan zen neska, eta berak hura ezagutuko ez zuen beldur ere bai. Baina berdin-berdin zegoen, sendoago, gizonago, ederrago. Laztan olatu batek hartu zion gorputza, eta bihotza, eta adimena. Korrika hasi zen harenganantz, ahaztuta trenean behin eta berriro bere buruari egingdako galdera, *maiteko ote nau oaindik?* Mutilak besarkadari erantzun zion, baina ez neskak nahiko zukeen bezain tinko. *Zer gertatzen da* itaunka begiratu zion, eta mutilak aurpegi hark berpiztu balu bezala, antzinako irribarre zabalarekin erantzun zion, eta muxuz

bete. *Maite hau, maite hau* erantzun zion bihotzak neskari.

Besarkaturik egin zuten hotelerako bidea. Inoiz banandu izan ez balira bezala egin zuten larrutan, hamabi urteak igaro izan ez balira bezala.

Armairua irekita, han ez zegoela ezer konturatu zen neska, eta artean harrapatu zuen olatu zoragarritik aske aurkitu zuen burua, bat-batean.

- Etzea hemen bizi.

- Ez.

Erantzuna laburregia izan zen. Hotel batean bizi-tzea, tira, baina ez bizitzea eta hara eramatea amorante arrunt baten gisa...

- Nun bizi za?

- Kanpaiñan -frantsesen moduan hitz egin ziola ohartuz-edo-, herri txiki batean -erantsi zuen.

- Eta zeatik ez goatze bertara? Etxen sentitu nahi det, azkenen!

Egun batzuk lehenago atzean utzitakoa ez zen etxea, hamabi urteko zigorra bete zuen kartzela zen.

- Gauza asko dare hemen ikusteko, eta gozatzeko.

Gerra Handiaren aztarnak zeuden nonahi oraindik, baina jendea deabruaren atzaparretatik ihes eginda

sentitzen zen nonbait, eta alai ikusten zen, zorianaren esperantzan.

Ordu batzuk kaleetan zehar egiten bazituzten ere, denbora gehiena hotelean igaro zuten ohearen bueltan.

Baina trena zain zegoen geltokian. Berarekin joan nahi zutenen zain. Eskailera bi igo besterik ez, eta magalean hartuko zituen, galderarik egin gabe.

- Jun egin behar det.

- Noa?

- Jun ein behar det, familie daukat -ezin izan zion begiradari eutsi berba egitean mutilak.

- Jun ein beharko genduke, bai, oain neu naiz zure familie -denbora luzea behar izan zuen erantzuteko neskak.

- Jun ein beharko genduke, bai, atzo txirringularik jun zien bezela.

Donostiaraino heldu zen lehenengoz bere historian Tourra, eta Caputek irabazi zuen etapa hura. Haren inbidia izan zuen mutilak eta sailkapenean aurrena zihoan Marinellirena, eta besteena, eta Euskal Herrian haiekin sartu ziren guztiena. Aztoratuta igaro zuen bezpera, txirringulariek, neskak, oroitzapen gehiegi ekarri zioten.

- Baño ezinezkoa da. Zeatik tematu? -gehitu zuen mutilak etsipenak aspaldi sortu zion ziurtasunez.

- Ezinezkoa da gutzat hautza jutea, baño ez hemen bizitzea.

- Ni hemen bizi naiz -oraingoan mutilak behar izan zuen denbora- familikin.

Neska, bat-batean ulertu izan balu bezala, negarrez hasi zen.

- Sentitzen det, sentitzen det bihotz-bihotzez -ahotsak dardara egin zion, bera ere negarrez hasi zen.

- Zeatik ez diazu itxoin?

- Bizi berrie ein behar nun. Maitte det. Umee dauzkeu.

- Nik itxoin ein dizut.

- Baño zu emakumea zea.

Damututa sentitu zen neska. Mutilari esandako hitzek erregu doinua izan zutelako. Gixajoa zen aitzi-nean zuena, eta pena eman zion. Pena, hark ez zuelako ezer aldatzerik nahi, argi zegoelako gerla galduta zuela, galduta bihotzean ere bai. Baina bera ere gixajo sentitu zen, eta pena eman zion bere buruak, pena, hark inoiz ez zuelako beragatik borrokatu, gerrara

joan zen, bai, baina gizonezkoen alde, emakumezkoek ez zuten gerrarik behar.

**Bultzia.** Amonaren etxean zeuden liburu batean irakurri zuen hitza. Aitak erretzekoen artean jarri zuten hartu zuen eskuetan. Trenari izen berria jarri zioten, nonbait. Makina hark zuen bultzia egiteko indarra falta zitzaion berari. Nola egingo zion aurre biziari? Agian bidaia hartatik haurdun itzuliko zen. Haranzkorian ilusio beteak izan zuen lagun, bueltatzean arrangura. Ez zuten etxean onartuko egoera hartan. Maistra lanetik ere bota egingo zuten.

Neskatila hura etorri zitzaion gogora, nola zuen izena? Neskatila polita, oso azkarra. Ikasturte hartako beka zela-eta, mutiko garai hura bidali zuen ikasketak kanpoan egitera. Oso ondo gogoratzen zuen orain neskatila, hain ikasle fina, ona, aratza, gelako onena, ez ziona eman gehiago ikasteko aukerarik, eta beste mutiko erdipurdiko hura joan zen bere ordean, gelako mutilik bizkorrena zelako. Eta handik urtebetera etxera bueltan gogoratu zuen mutikoa, eta neskatilaren aurpegierak ere ez zituela ahaztu esan zion bere buruari: mutikoa joan zenekoa, eta itzuli zenekoa, joa-



nean inbidia eta etsipena adierazten zituena, eta etorreran mespretxua, ia gorrotoa. Mutiko ergel halakoa! Nola zuen izena neskatilak? Miren, bai, Miren zuen izena.

## LITERATURA NAHIERAN

Enkargu berririk bazuen jakiteko klikatu zuen *Literatura nahieran* webgunean. Hilabete zen ez zuela bat ere jaso. Oso ondo etorri zitzaion, ideia aldetik agortuta zebilelako. Baziren lau urte negozioa ireki zuela. Irakurleek eskatzen zutena egiten saiatzen zen beti, eta arrakastaz itxuraz; hirurogei ipuin baino gehiago, bi nobela labur, eta eleberri luzea idatzi zituen denbora tarte horretan, eta bezeroak gustura utzi zituen, antza.

Enkargu berria zegoen. Emakume bi nahi zituen bezeroak, maitasun istorio bat amaiera txarrarekin. Baina hau zen sakoneko eskaria: maitasun platonikoa behar zuen izan. Alde bietako sentimendu eta desirak ondo azaldu behar ziren.

Onartuko ziola erantzungo zion, baina argitu zezala sentimenduek ala desirak hartu behar zuten arlo handiagoa. Eta proposamen bat zeukan «postrerako»: emakume biak elkartzea; jarriko ziola sorpresa puntua, piperra opilari.

Baietz erantzun zion bezeroak, ados zegoela.

Idazleak amaieratik hastea pentsatu zuen, honela:

*Sartzeaz batera parez pare dagoen karezko horman ordulariak zortziak direla diosku zazpiak direnean, bere azpian eskuineko hormako leihotik barrena eguzkiak bidalitako izpiek argia zabaltzen dute gaztaina-zurezko komodaren argizarian. Leioa jantzi gabe dago, harlauzak egiten dion apalean ez dago ezer. Harritzko hormatik hari begira dagoen ohea nagusi da logelan, burdinazko ohe sendo eta zabala, izara zuriekin estalia. Ez dago jarlekurik, ez dago tapizik gerezi-zurezko lur zaharraren gainean, ez dago margorik inon eskegita, ez dago argazkirik komoda gainean argazkiak jartzeko mesanotxerik ez badago ere. Komodaren atea giltzaz itxita dago inork haren barruan ezer ahatz ez dezan.*

*Baina luxu gabeko gela luxuriaz beteko da laster, haragikeriaz...*

## AGURRA

**Asko** pozten naiz zu ezagutu izanaz, Sinda, eskerrak eman behar dizkizut, bihotz-bihotzez zure laguntzaga-tik. Irratian aurkitu zintudan goiz bateko umore saio batean, barre itzelak egin nituen zurekin, kontent zen-biltzan zure senargai ohiaren berri ematen. Berehala erakarri ninduzun zure xalotasunagatik.

Agur esateko unea heldu da, eta mesedea eska-tzeko unea niretzat. Pertsonaiei pendrive bat zor diegu, memoria bat, ihesari utzi eta ezlekuetan lo egin ez dezaten. Pertsonaiei beste aukera bat eman behar diegu, eta geure buruei ere bai. Maitasuna lehergailu bat da, eskuetan leher lekizuke eta elbarri utzi, edo urre-meatze batean leher egin lezake, eta betiko abe-ratsarazi. Egizu ahalegina, Sinda, eta maitasunari beste bertsio bat eskatu, beste amaiera bat besterik ez bada.

# Ginebra erreginaren itzulera

**Izurtzako** Etxaburuko dorrean gaur, azaroak hogeita bat egun dituenean, Ginebra erreginaren berrogeita hamaikagarren urtebetetzea ospatuko dute. Onddoak eta gaztaina erreak jango dituzte, Tabiran erositako ardoarekin, aspaldian ez dira-eta Bitoriako ferian izan, hiribildua setiatuta baitago joan den sei hilabetean. Laster batean XIII. mendean sartuko dira. Sei mende luze dira euren mitoa hasi zela, eta badakite XX. mendean oraindik Galahaden adorea miretsiko dela Ginebraren traizioa arbuiatuko dela eta Arthurren zoritxarrak bihotzak hunkituko dituela.

Fool bufoia goizean goiz joan da ondoko hiribildura, eta han, Urkiolarako atean, inguruko baserritarren eskaintzei muzin eginda, erdigunerantz abiatu da Biasteriko ardoaren bila. Laster itzuli da etxerantz, eta bidean, besterik ezean, txikoribelar-loreak batu ditu erreginarentzat.

Hark irribarre hits batez eskertu dio, eta mahai gainean jarri ditu eguzki txikiak pitxartxo batean. Ba-

daki Foolek maite duela; maitasun horrek eragin zion samina baina, ez dio inoiz barkatuko, harrezkero zuria, gorria eta beltza baitira bere amesgaiztoetako koloreak.

Elurak estalitako berdea da, ordea, semea kuman, bere eta Galahaden seme jaio berria. Hark ematen dio bizitzen jarraitzeko kemena, aitita Lanze-loten esperoan. Ez daki ezer hartaz. Hilda dago hainbatean, basamortuan erreta edo mendi garaietan izoztuta.

Graal sailduaren esperantza berpiztua da umea Arthurrentzat, horregatik ez zuen akabatu jaio zenean. Haren karenta lehen Gernikako arbola izango zen kimuaren azpian lurperatu zuen, arbola santuak indarra har zezan.

Hori eskatu zion Merlini, kimu hura gogortzeko. Galahad garbitu zuenetik, bere etsipenean, inoiz baino ozenago eta sarriago deitzen dio aztiari, baina hark ez dio jaramonik egin nahi, edo Euskal Herria urrunegi dago berarentzat.

- Zergatik abandonatu nauk, adiskide zaharra? -galdetzen dio-, ez nauk jada maite?

Merlinek ez dio erantzuten, mutu dago, Ginebra legez.

**Eraiketaren** hurrengo eguna garbi azaldu zen. Eguzkia indartsu ageri zen Santikurutzetik, neguari egun guztian etenik gabe eraso egiteko. Borroka gehiegi zegoela pentsatu zuen Foolek, azkonek, ezpa-tek, eta balek errukirik gabe zulatzen zituztela bihotzak nonahi, eta hala ikusi zuela mendeetan zehar.

Arthurren begi-zulo ubel eta aurpegi zurbilean heriotza zetzan oraindik ezkaratzera jaitsi zenean.

-Fool -esan zion-, eraman itzak atzoko enbor eta arramak baratzerara, eta piztu ezak sua.

- Iritziz aldatu zara? -galdetu zion morroiak aztoratuta.

- Ez, gorpua erre behar diagu.

Erreginak ez zion oniritzi errautsak lurperatzeari. Mutilaren aita, Lanzelot, ageriko zen egun batean, eta esku hutsik aurkituko zen hari ezer emateko, ezingo zion berea zena itzuli.

Arthur erregea ez zen errukitu.

- Hemengo antzinako erara egingo dugu -esan zuen, eta morroiari aitzurraz ekiteko agindu zion.

Errautsak hilobiratutakoan, han geratu zen anderea lur aztarrikatuaren ondoan. Bere adatsak distira

horailak egin zituen hasieran, zuriak gero, egunsentira arte. Foolek ere ez zuen lorik egin, eta noizbehinka leihotik, zelatan, haren zotin eta negarrak entzuten ziotuen. Haiek izan ziren erreginaren ahotik berarentzat eta erregerentzat atera ziren azken soinuak.

**Bertoko** zaldunekin harremanetan dabil Arthur erregea. Gaztelarren erasoak dira haien ardura. Durangarren errege nafarra urrun dabil, Afrikan, hangoen laguntza behar du. Laster Durango Bizkaiko kondearena izango da, eta Historian beste bide bat hartuko du. Mutikoa koskortzen denean berarekin eramaten hasiko da.

- Ikas ezak orain eta egin ezak bihar -esango dio-, 2000. urtean oraindik gudan ibiliko dituk eta.

Afal ostean Ginebra erregina baratzera aterako da. Elurra ariko du. Busti egingo da anderea eta hoztu. Maitearen besoak nahiko ditu bizkarra batzen, haren arnasa beroa nahiko du masailak laztantzen, haren eleak utzi izana arintzen.

- Buelta hadi -bere artean dio erregutuko.
- Etor hadi hirea dena hartzera -dio gomendatuko.
- Iloba ere kenduko dik -du ohartaraziko.



Eta negarrez hasiko da.

Beti zelatan dagoen morroiak haren zotinak entzungo ditu, eta maitearen etsipenak sortzen duen saminaz eta guritasunaz zeta urdinezko zaia estaliko dio kapusaiaz, pena handiz, ze bere gorputzaz estali nahiko luke. Leihotik bere argiaz erregina laztanduko duen suaren inbidia izango du bufoi ziztrinak.

- Zatoz, umea negarrez da -entzungo dute.

Foolek umezain egin beharko du. Oba-oba txuntxurunberde kantatuko dio, esperantzaren kolorea daraman kankak inguruak alaituko dituelakoan. Berba musikatuak arao bilakatuko dira, eta apurka-apurka lainoak dena irentsiko du.

**LO** sakonetik iratzarri da Arthur erregea ikaraturik. Aspaldiko lagunaren ahotsak esnatu du.

- Hator, ahantz ez gaitzaten; itzul hadi Camelotera, ahantz ez gaitzaten!

Bat-batean gaztetuta sentitu da gizona, mendeak soinetik kenduta. Izara albora egin eta jaiki egin da lirain.

- Fool, Fool, bagoazak, bagoazak!

- Nora, jauna? -galdetu dio morroiak beste askotan legez.

- Etxera. Ai, ene!

Bufoiak jakin gura luke pozak ala tristurak eragin dion hasperena. Mitoak berpiztu egingo diren ala liburutegietako izkinaren batean lo geratuko diren. Ez daki hilezkorrak ere badiren. Tokian eta denboran zehar bidaiatu ahal badute ere, horrek ez die eginda-koak aldatzeko aukerarik eman.

- Uda hasieran joango gaituk -erantsi du, eta umearen gelara abiatu da oroimenen zakua husteko asmoz.

**Etxaburuko** dorrearen alboan gauza ugari pilatu da. Ate eta haga zaharrak, zedenak jandako teilatuko lata-oholak eta gapirioak, eskolako kaierak, aldizkari zaharrak, eta enbor eta egurrak. Arthur erregea, Ginebra erregina, Fool bufoia eta umetxoa inguruan daude.

Arratsean, muino eta auzuneetan su bakan batzuk izeki dira. Gaua den arren, abiadura handiko trenaren lanen zaratak entzuten dira. Haien erritmoan dantzatzen du suak. Erreginak goizean, semearekin batera,

era askotako sendabelarrak batu ditu, eta beraiekin ia dena sendatzeko balio duen donibane-ukendua egin du. Mendeetan ez bezala, pozik dago gaur anderea, eta adats oraindik horailean larrosa gorrixka bat jarri du. Barre egitean suaren ispilua da bere burua. Atzo gutun bat ekarri zioten, *banator* zioen. Luzaroan dirau suak, erreginari dantzan lagundu nahian. Azkenean, txinpartek nekatuta, lotara joan gura dute eta amata-tze lanetan hasi dira. Ginebrak laztanduz agur esan die. Eta etxeko bizidunak ere amatatu direnean, bere gelako ohe zabalean etzan da biluzik.

## DEMAGUN

**Demagun** pendrivea ez dela idazle batena, erakunde armatu batena dela.

Demagun hartzaileak orain dela bi hilabete hartu behar zuela, baina gaur eman diotela; lurrean aurkitu dutela esan diote, gainean bere izena idatzita zerman gutun-azal baten barruan. Demagun hartzaileak ez zekiela horrelako gutunik hartu behar zuenik.

Berehala konturatuko da gutunazala zabaldu eta berriro itsatsi dutela.

Demagun orain dela hilabete eta erdirako zita zekarrela kapsulatxoak. Noski, zita hartara ez zen azaldu hartzailea. Bigarren zita bat zegoen handik hamabost egun barrurako, baina, noski, ez zen hartara ere azaldu.

Demagun gure hartzaileak -honezkero ezagutzen dugu *gure* esateko beste- mugimendu arraroak nabari dituela aspaldion bere inguruan, jende andana telefono mugikorra eskuan bere mugimenduak kontrolatzen, eta ez du ulertzen ezer, baina badaezpada inguruan kontaktzen hasi da, ea ez ote dabilzan bere atzetik barik beste norbaiten atzetik.

Ez zebiltzan beste norbaiten atzetik. Manifestazio batzuetan ikusia zuten neska, herriko euskara taldean ere bai, baina oraingoa bonba bat zen ministerioarentzat: bere bidea egin zezan utziko zioten habiara heldu arte. Han lehertuko zen triskantza eraginez, eta etxea hankaz gora jarriz.

Tour Eiffelerako ilarari begira egin zuen ordubete goizean bezala. Arratsaldeko zita zen, azken zita. Etsipenak hartu zuen, ez zen etorriko oraingoan ere; ez zion beste munduko ezer eskatzen, soilik pare bat egun lagun moduan. Hotela hartua zuen, lehen zitarako ere hartu zuen hotel dotorea, Montmartren. Ekin-tzaile ona zen, eta baimena eman zioten senideak ikusteko. Arrebagan pentsatu zuen; hura bai, hura etorriko zatekeen, baina arriskatzeko beharra izan zuen, ezin baitzuen neska hura ahaztu. Agian, kartzelan amaitzen bazuen eta ez pinu-egurrezko kutxan, bisitan etorriko zitzaion bere kamiseta zuri estuarekin, ile kirruak sorbaldak laztantzen zizkiola. Musu gozoa emango zion matrail banatan, eta irribarre zabal politak laztanduko zuen, besterik ezean. Beharbada, berriz bueltatuko zen gizonduta ikustean eta holako egoerek eragiten duten sentikortasunak bultzatuta. Eta gero... Agian.

Patua zer den! Batzuetan kalte egin nahian on egitera hel daiteke. Gure kasuan atxiloketa eta kartzela ekidinarazi zituen. Noren eskutik? Ba, pendrivea agindutako lekuan utzi ez zuenaren eskutik. Zergatik ez zuen agindutako tokian utzi? Ganorabako hutsa zelako? Ba, ez.

Hainbeste gustatzen zitzaion neska haren izena gutunazalean irakurri zuenean hotzikarak hartu zuen une batez. Ez, neska hura ez! Neska hark hartatik guttitik kanpo egon behar zuen. «Ez sartu nire gauzetan» esaten ziola irudikatu zuen: haserre keinuak ezpain mamitsuak nabariagoak jarri zizkion. Gerritik oratu eta adats horailaren distira laztantzen ikusi zuen gero bere burua, «Lasai, zure onerako da, bion onerako; ez nuke jasango zu ziega nazkagarri baten zaudela jakitea, haien eskuetan, edozer egiteko gogoz dauden txakurren eskuetan», musu luzea emango zion gero, eta onspena irakurriko zion begietan, «eta kartzela zigorra dator gero, maitea, nola konponduko ginateke? Gutariko batek kalean beharko luke».

Gutarikoa *zu* baino ez zen. Ezin zuen alderantziz irudikatu. Emazteak ez zuen ondo eramaten bere gizonkeria. Euren arteko liskar guztien sormena zen.

Adarrak jarritakoan ere hala ulertzen zituen: ezin konformatu eme batekin, harem osoa behar.

Baina gizonak bazekien ez zela ausartuko gutuna eskura ematen. Sei hilabete ziren eurena hoztu zela, ozta-ozta agurtzen zuen hark, eta biak bakarrik geratzeko arriskua ikusten zuenean ospa egiten zuen, usaimen berezia zuen trikimailuetan zebilela igartzeko. Errefuxiatuen aldeko azkeneko bileran, adibidez, bere ondoan lekua ikusi bezain laster han jesarri zen «Kaixo» esanez, baina honek ez zion erantzun. Hamar minutura «Komunera noa» batekin alde egin zuen. Ez zen itzuli, bidean adiskide batekin topo egin eta haren ondoan geratu zen.

Nola emango zion eskura gutuna, eta agerian utzi posta-lanetan zebilela? Ezin. Baina kasualitatearen batek erakuts ziezaiola desiratzen zuen gogo biziz. Neska hura zerbaitetan bazebilen, jakin zezala berak ere lanean jarraitzen zuela. Horrela, beharbada, puntuak irabaziko zituen. Bai, zeren galduta zituen, itxuraz.

Zahartzen ari zen. Berrogeita zortzi urte arte ondo eutsi zion gaztetasunari, baina gero arin batean egin zuen beherantz: egunean-egunean ilea urdinago jartzten ari zitzaion, haragia eroriago; azala orban ilunez

betetzen ari zitzaion, eta aurpegia, bere aurpegi ederra, zimurrez. Batzuetan ez zuen bere burua ezagutzen, zer aldaketa! Horregatik udaberri hutsa zen neska harekin izan zuen aferak segurtasuna itzuli zion. Neska gazteei gizon helduak gustatzen omen zitzaizkien, baina berak bazekien gizon helduaren gehigarriek erakartzen zituztela batez ere: diruak, estatusak eta botereak. Berak ez zuen holakorik, errefuxiatu bat baino ez zen. Lehen itxura fisikoaz erakartzen zituen emakumeak, baina jadanik ez hainbeste, behin baino gehiagotan bidali zuten popatik hartzera eta. Errefuxiatu izateak *ambienteko* neskak erakarri egiten zituen oraindik, nahiz eta ospe ona desitxuratuta zegoen, baina bertoko giroan zebiltzan neska batzuek hori baino gehiago nahi zuten, hierarkian gora zeuden gizonei begiratzen zieten soilik. Bere neska xarmantaren kasuan ezetz uste izan zuen, baina orain gorago-koekin harremanetan zebilela argi zegoen. Amorrua sentitu zuen.

Nor ote zen Xan hura? Azken hogeitun urteotan eroritakoen artean ez zegoen Xanik ez antzekorik. Euren artean asmatutako gaitzizena izango zen, beraz, bere neska kuttuna aspalditik zebilen zeozertan. Ezin zuen jasan. Gehiegizkoa zen berarentzat.



Ez dut gure errefuxiatua maitearen destainagatik eta ustezko aurkakoaren estatusa eta boterea ezin ikusirik traidore eta salatari agertuko, batzuek nahiko luketen bezala. Gidoi hori pelikularako. Gure gizona gizajo bat baino ez da, eta horregatik, eta maitea salbatu nahian, pendrivea ez entregatzea erabaki du. Zelan egin, baina, erantzukizunik gabe? Ohiko lekuan utzi zuenak, hurrengo posta eramatean, gutuna jasota dagoela ikusiko du. Gure iheslariak ez daki zer egin, niri ez zait etortzen zer egin dezakeen berak. Kale erdian jaurti? Ez, behar ez denen eskuetara heltzeko aukera oso handia da. Ala, bai? Bai, jaurti egingo dugu, *ambientekoak* egunero joaten diren ostatu bateko lurrean geratuko da, barratik ahalik eta gertuen. Zurruteroen batek jasoko du, edo jabeak. Aurkitzaileak neska xarmentari emango dio, edo erakundearentzako korreo-lanetan dabilela pentsa ez dezan, etxeko posta-kutxan utziko dio. Eta orduan neskatxak ziten berri jakingo du, eta han abiatuko da korrika bizian Parrisarentz. Eta han atxilotu egingo dituzte. Ezta pentsatu ere, beste irtenbide bat behar dugu.

Aizue, tabernari beldurtia sar dezakegu, taberna-jabe beldurtia hain zuzen.

Denbora nahikoa igarotzen utzi eta gero, gure iheslariak bota du gutuna barra azpira, zurrutero batek jaso du, izena irakurri du, ez du ezagutzen. Alboetara begiratu du, ez dago inor, nori erori ote zaio? Taberna hutsik dago. Jabeari ematea deliberatu du. Hark ere irakurri du azala, ez du ezagutzen. Izkina batean utzi du, etorriko dira bila galdu dutenak.

Eta gero zer? Ba, hilabete baino gehiago igaro dela eta ez dela inor bila joan. Tabernariak gutuna irekitzea erabaki du. Pendrivea ere bai, noski. Barrako ordenagailuan. Beldur-ikara kokotean. Jendarmeriara eramatea erabaki du.

Baina, honezkero Tour Eiffel inguruak begiratuta egon beharko lirateke, arrakastarik gabe. Bai, ez dudala azaldu nola jakin zuten jendarmerian? Berdin dio, zeozer asmatu beharko du irakurtzen duenak ere, detaileari erreparatu badio, bederen.

Hortaz, tabernariak ez du jendarmeriara zertan jo. Aurkitu zuenari itzuliko dio. Zurruteroa inguruetan galdezka hasiko da ea izen hori duen neskarik inork ezagutzen duen. Horrela, afera aho guztietan ibili ondoren, gure neskak bere postontzian ikus lezake azkenean gutuna. Zer deritzozue?

Hori ere badugu? Egia. Gure exiliatuarentzat posta utzi duenaren belarrietara hel daiteke, bai, gutuna bueltaka dabilela. Inozoegi gertatuko litzaiguke exilia-tua, uste badu tabernan lurrera jaurtirik bere helburua beteko duela inongo kalterik gabe. Koartada asmatua duela uste dut, kontuak ematera deitzen badiote ere. Hori da, kalean ostu egin dutela esan lezake, dena kendu diotela, dirua, giltzak... Laster zabalduko litza-teke berria lagun artean.

Baina egia orain ere, kateko beste postariarena ere konpondu beharrean gaude. Utzi pentsatzen.

Badakit! Gure exiliatuarentzat posta uzten duena bere emaztea da. Gizonak ez daki hori, noski. Zertan ibili ote den oraingoan senar txotxoloa galdetzen dio bere buruari andreak. Edatera joan eta tabernan behar ez dena galdu. Horrela egingo dugu guk iraul-tza. Eta senarrarena zen ardura betetzera joango da oraingoan ere.

## EDITOREAREN EPILOGOA

**Geure** bizitzak idazten ditugu liburu den munduan, sei mila milioi hitz gutxienez, ehun eta hirurogeita bost orrialdeko hamabi milioi eta erdi eleberri belau-naldi bakoitzean, eta gehituz doa. Zenbat galaxiatan irakurriko ote dituzte? Noiz editatuko dira *Lan guztiak* edo Entziklopedia? Agian inoiz ez, gu ez bezala hilez-korrek omen dira materia, maitasuna eta literatura bera...

Berdin dio norena den pendrivea, edo nork aurkitu duen. Hitzek, entzun ala irakurri, beste zerbaitetan arreta jartzen behartzen gaituzte. Hitzek, esan ala idatzi, beste unibertso bat sortzen laguntzen digute.

Sosik ez dugu irabaziko, baina aberastu bai, aberastu egingo gara, aberasten ari gara.

Irakurtzea maite dutenei eskainita dago lan hau.